

2025

Jardueren memoria



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación
Ecológica de Euskadi

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	2
LABURPENA	4
ORGANIGRAMA.....	7
KONTSEILUAREN JARDUNA 2025	9
KOMUNIKAZIO ETA SUSTAPEN JARDUEREN EGITARAUA	11
5.1. BARNE KOMUNIKAZIOA	11
5.1.1 Elkarre eta kontsumo taldeekin harremana sustatu.....	11
5.1.2 Barne buletinak	11
5.1.3 Eragile berriei ongi etorri saioa	12
5.1.4 Zerbitzuen katalogoa.....	12
5.1.5 Salmentarako euskarrien ekoizpena	13
5.2. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN JARDUERA BALIOAN JARRI	14
5.2.1. Komunikazio kanpaina	14
5.2.2. Zuzeneko komunikazioa	14
5.2.3. Hitzaldi eta mahai- inguruak	17
5.2.4. Erakusketa ibiltaria.....	19
5.2.5. Dibulgaziorako materiala	20
5.2.6. Agroekologia	21
5.2.7. Sare sozialak eta webgunea	22
5.2.8. Merchandising.....	22
5.2.9. Ekintzak lagundu	23
5.3. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN HAZKUNDEA BULTZATU EAEN.....	26
5.3.1. Sektoreko teknikariekin jardunaldi teknikoak	26
5.3.2. Mahastigileekin bilera teknikoak	26
5.3.3. Behi hazkuntzako plan sektoriala.....	26
5.3.4. Belardira irteera	27

5.3.5. Mendi lurretako larreak ekologikoan izen emateko gida	27
5.3.6. Busturialdea-Urdaibaiko lehen sektorea dinamizatzeko lan taldea	28
5.3.7. Landare ekologikoaren hornikuntzari buruzko lanketa	28
5.4. KONTSEILUAK ZIURTATUTAKO EKO ELIKAGAIEN ESKAINTZA BISTARATU.	29
5.4.1. EKOEUS azoka profesionalak Euskadin	29
5.4.2. EKOEUS azoka profesionalak Euskaditik kanpo	30
5.4.3. Udako azoka ekologikoak.....	30
5.4.4. SAREKO. Salmenta puntuen mapa eta Merkaturatze Sarea	34
5.5. KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANA SORTU ETA SENDOTU	36
5.5.1 Argia Hitzarmena.....	36
5.5.2 Ekosfera elkarlana	36
5.5.3 Prentsarekin harremana	36
6. KONTROL ETA ZIURTAPEN ARLOA.....	41
6.1 ERREGISTROAREN KUDEAKETA ETA INFORMAZIO-ESKAEREI ARRETA EMATEA.....	41
6.2 ERREGISTRO ETA DOKUMENTAZIO SISTEMAREN MANTENTZEA.....	41
6.3 KALITATE-SISTEMAREN MANTENTZEA ETA EGOKITZEA	41
6.4 FORMAKUNTZA	42
6.5 INTERECO-N PARTE-HARTZEA	42
6.6. KONTROL ETA ZIURTAPEN LANAK.....	43
6.6.1 Eragile ekologikoen errolda.....	43
6.6.2 Jarduera ziurtatuak	47
6.6.3 Inskribatutako azalera	49
6.7 KONTROL PLANAREN HELBURUAK ETA EMAITZAK.....	52
6.7.1 Kontrol eta analitika plana	52
6.7.2 Laborategiko analitikak eta emaitzak.....	53
6.7.3 Kontrol planen emaitzak eta ziurtapen-erabakiak.....	54
6.7.4 Atzemandako ez-adostasunen xehetasunak.....	55

LABURPENA

Aurreko urtean osatu zen kontseilukide talde berria eta iazko lan dinamika handiari eutsi zaio. Kontseiluaren osoko bilerak 3 izan dira eta beste hainbat bilera izan dituzte kontseilukide hautatuek gai desberdinekin: 2025ko komunikazio ekintzen planari ekarpenak egiteko; EHKOrekin elkarlan dinamika berriak abiatzeko; “Hurbiltze” deitutako proiektua antolatzeko, non kontseilari, langile eta eragileen arteko dinamika berriak martxan jarri nahi diren; Legebiltzarrean agerraldia lantzeko; Politika publiko desberdinei ekarpenak egiteko, adibidez, errelebo estrategia edota dirulaguntzak.

Kontseiluko lehendakaritzak eta zuzendaritzak iaz martxan jarritako komunikazio espazioari eutsi zaio, bertan astero kontseiluaren dinamikan ateratzen diren kontuak koordinatu dira, ekitaldi desberdinetara joateko gonbidapenak, agerraldiak, egitasmo desberdinei ekarpenak, komunikazio ekintzak, kontseiluko kideen bilerak, gai zerrendak, etab.

2025ean, berriz ere berritu da Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzarekin sinatutako **lankidetzeta-hitzarmena**, Kontseiluaren jarduerak garatzea ahalbidetzen duena. Gainera, Kalitate bereizgarriak bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren “Kalitatea” diru-laguntza jaso da. Diru-laguntza honek eragile berriei edota ekoizpen aktibitate berri bat ekologikoan hasten dutenei laguntzeko lerro bat du eta kontseilutik eragile askori diru-laguntzaren lerro hau tramitatzen lagundu zaie.

Lan taldeari dagokionez, aurreko urteko taldea mantendu da, 12 langileko taldea. Urte hasieran ziurtapen teknikariaren amatasuna zela eta lan baimenak eta eszedentziak hartu zituen baina ez zen ordezkatu beharrik izan. Urte hasieran lan istripu bat izan genuen auditore batek kotxe istripua izan zuen lanera bidean, kontseiluko ibilgailua guztiz puskatu zen baina zorionez langileari ez zitzaion ezer gertatu eta ospitalean egun bat behaketan egon ostean etxera bueltatu zen.

Eragileen errolda iaz baino pixka bat gehiago hasi da %6, pandemia geroztik jaitsi egin zen baina aurtengo igoera aurretik zeuden hazkuntzetara hurbildu da. Guztira 813 eragileekin bukatu dugu urtea, iaz baino 45 gehiago. Erroldaren %17 titular gazteak edo behintzat 40 urtetik beherakoak dira. Alta eskaerei erreparatuta, orokorrean interes maila handitu egin dela esan daiteke, batez ere ekoizleen artean eta bereziki Errioxako mahastigileen artean. Elaborazio enpresetan geldialdi bat somatzen da, bai kopuruan zein daudenen fakturazioan. Hazkuntza oraindik handiagoa izango zen baja kopurua ez balitz horrenbestekoa, aurtan 29, azken urteetan baino pixka bat txikiagoa. Bajen arrazoi nagusia azken hiru urteetan errepikatzen ari da, gehienek nekazal jarduera uzten dute, ez dutelako bideragarritasuna argi ikusten.

Inskribatutako azalerak nabarmen egin du gora %43, guztira 18.167 Ha, 5.478 Ha gehiago. Batez ere larre eta mahasti azalaren igoerek azaltzen dute datu hau, larreen kasuan 3.110Ha mendi komunal eman dira altan 4 udalerritan. Zer pentsa ematen du zenbait landaketa estentsibotan eman den jaitsierak, Arabako lekale eta pataten kasua da.

Une honetan, Euskadiko nekazaritza lurren % 8,7 ekologikoan ziurtatuta dago, oraindik urrun 'Baserritik mahaira' Europako Itun Berdearen helburua betetzetik, hau da: 2030ean lurren %25 eredu ekologikoan kudeatuak izatea, alegia. Edozein modutara 2024 urtetik bi puntu egin ditu gora 2025ean.

Kontrol eta ziurtapen lanak. Inoiz baino kontrol bisita gehiago egin dira, erroldak handitzen jarraitu duelako. Abisatu gabe egindako bigarren kontrolak eta analitikak araudiak eskatzen duen ehunekoetatik gora mantendu dira, analitiken kasuan bi puntu gaineratik. 2025ko emaitzei erreparatuta, emaitza analitikoak onak izan dira mahastigintzan izan ezik, Errioxan positibo edo kutsadura gehiago antzeman dira. Orokorrean arau hauste kopuru antzekoak detektatu dira eta arau hauste arrazoiak antzekoak izan dira. Ziurtagiri gutxiago kendu dira eta denboraldi baterako eten gutxiago eman dira baina produktu gehiago deskalifikatu da eta bilakaera epea berriz haztea edo luzatzea gehiagotan erabaki da, batez ere Errioxan detektatu diren analitika positiboen ondorioz.

Jarraitu daiteke esaten emaitzak ikusita, Euskadin Nekazaritza Ekologikoa egiten diharduen nekazari, abeltzain, elaborazio eta merkaturatze enpresen profesionaltasuna eta ekoizpen eredu ekologikoarekiko kontzientzia maila, altuak direla.

Kontrol eta ziurtapen espedienteak kudeatzeko dokumentazio sistema berria ezarri nahi izan da 2025ean, baina aplikazio informatiko berria garatu behar zuen enpresak bat patean itxi ditu ateak eta hornitzaile berri batekin abiatu behar izan dira lanak berriz ere urte amaieran.

Komunikazio arloan lan taldea bi teknikarik osatzen dute. Komunikazio eta sustapen-jardueren tipologiak aurreko urteetan ezarritako dinamikari eutsi dio. Aipagarriak izan dira EHKO-rekin abiatutako elkarlana, Euskal Sagardoarekin batera egindako txotx identifikatzailea, barne komunikazioan egindako lana.

Sareko proiektua indartze aldera ekoizle talde berriak osatzeko dinamizazio lanak egin dira. Aldi berean elikagai ekologikoak non erosi erakusten duen mapa hobetzen eta osatzen jarraitu da, nahiz eta momentuz ez den eragileen inplikazio nahikoa lortu.

Aurten ez da HAZIren babesik izan urteko publizitate kanpaina egiteko eta Eusko Jaurlaritzak jasotako aginduari jarraituz kontseiluaren funtsetatik atera behar izan da dirua, ondorioz “Ekologikoa, dena hobetzeko” kanpaina inoiz baino xumeagoa izan da.

Bestalde, legealdi berrian Eusko Jaurlaritzak nekazal ekoizpen ekologikoa garatzeko plan berria agindu zuen baina momentuz ez da martxan jarri.


ORGANIGRAMA

AGINTARITZA ESKUDUNA

Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritza: **Nora Beltran de Otalora Errasti**

ENEEK-EKOLURRA

Organigrama



Kontseilua (gobernu organoa)

Kontseiluko Lehendakaria: Judit Gartzia Llorens

Kontseilukideak:

Lehendakaria: JUDIT GARTZIA LLORENS Lehendakariordea: GARIKOITZ AUESTA ETXANIZ

Ekoizleen azpi erroldaren kide titularra:

- Araba: RAUL RITUERTO TURRADO
- Bizkaia: SONIA INGUNZA ZUMALDE
- Gipuzkoa: MIREN NEKANE TOMASENA ELORZA

Elaboratzaile, inportatzaile eta Merkaturatzaile erroldako kide titularra:

- Araba: ANNA MONTSERRAT MINGUELLA
- Bizkaia: NADIA LÓPEZ RUIZ
- Gipuzkoa: JOSE RAMÓN ARRIETA ZIALZETA

Euskadiko kontsumitzaileen elkartearen ordezkaria: ION ARIÑO. KOLDO LEZAMIZ gonbidatu gisa deitu da, Ekokontsumo Federazioaren ordezkari gisa.

Euskadiko Administrazio Orokorraren ordezkaria: IKER IGLESIAS EGUIA (Elikagaien Kalitateko Zuzendaria)

Ordezkoa: ANA GUTIERREZ

Foru-aldundien ordezkariak:

Araba: M^a ASUNCION QUINTANA URIARTE (Nekazaritza Zuzendaria). Ordezkoa: SILVIA CORCUERA.

Gipuzkoa: XABIER ARRUTI (Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaria). Ordezkoa: MIKEL AZPIRI

Bizkaia: ARANTZA ATUTXA (Nekazaritzako Zuzendari Orokorra) Ordezkoa: OIER DUNABEITIA

Idazkaria: XABIER LEJARZEGI (Kontseiluko Zuzendaria)

Ziurtapen batzordea (alde interesatuen batzordea)

Batzorde honetan kontrol eta ziurtapen lanetan interesa izan dezaketen alde guztiak ordezkaturuta daude, kontsumitzaileak, ekoizleak, administrazioa eta adituak, denak maila berean, ez da bat gailentzen. Ziurtapen-jarduerak kontrolatzeaz arduratuko den organoa da, eta ziurtapen-prozesuan inpartzialtasuna eta independentzia ziurtatzeaz arduratzen da. Kontseiluaren lan esparru eta estrukturatik kanpo dago eta kideak zuzendaritza-taldearekiko independenteak dira. Urtean behin batzen da.

Ordezkatutako interesak eta karguak: **Administrazioa ordezkatzan**, EJ Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzatik: Ana Gutierrez, eta Foru Aldundietatik ordezkari bat; **Ziurtapenean adituak** (HAZI), Amaia Jauregi, Patricia de la Torre; **Kontsumitzaileak**, Ion Ariño (EKE), Koldo Lezamiz (Ekokontsumo Federazioa); **Elaboratzaile, Merkaturatzaile eta Inportatzaileak**, Ainhoa Agirre (Aguirre División Agropecuaria), Arantxa Arruabarrena (Oihanalde); **Kontseiluko kontrol eta ziurtapen arlotik**, ziurtapen teknikaria Itxaso Cadenato eta zuzendaria Xabier Lejarzegi, azken honek batzordearen **idazkaritza** lana ere badu.

ENEEK-Ekolurrako zuzendaria: Xabier Lejarzegi Irazabal

Kontrol eta ziurtapen arloa

Ziurtapen teknikaria eta kalitate sistemaren arduraduna: Itxaso Cadenato.

Arloko administrazio lanak: Kristina Somozas

Auditoreak: Irantzu Alegria, Amaia Lopez, Esti Martinez, Julen Elorza, Mikel Guergue eta Haritz Mayora.

Komunikazio eta sustapen arloa

Teknikariak: Nagore Usabel eta Amaia Esnaola

Administrazio arloa: Igor Petralanda

KONTSEILUAREN JARDUNA 2025

Urtean zehar hainbat bilera egin dira, batzuk telematikoak izaten jarraitu dute baina presentzialetara bueltatu gara. Kontseiluaren osoko bilkurak hiru izan dira, honako gai-zerrenda hauekin:

2025/03/13ko BILKURAREN GAI-ZERRENDAA

1. *Aurreko akta onartzea, eta egiteke dagoena berrikustea.*
2. *Lehendakaritzarekin landutako asteko gaien errepaso azkarra egin.*
3. *Txakoli ekoizleen eskariaren egoera, Urkizahar upategiko Luisjaren eskutik ezagutu.*
4. *Leintz Gatzagako Udalak eta Debagaraia LGE-ak sinatu duten alegazio-eskariak*
5. *informatu (gatzaren ziurtagiria).*
6. *Landa Garapen Elkartetako bazkide izateko gaiaren azterketa.*
7. *Aldundiei eskatutako datuen inguruan egoera.*
8. *2024 urteko kontuak*
9. *2025 aurrekontuan aldaketak eta KP25.*
10. *FOPE plan berriaz informatu.*
11. *Sabin Irastorzaren eskariari zer erantzun erabaki.*
12. *INTERECO elkarteak hauteskundearen emaitzaren berri eman.*
13. *Galde-eskeak.*
14. *Hurrengo bilera eguna ezarri.*

2025/07/10ko BILKURAREN GAI-ZERRENDAA

1. *Aurreko akta onartzea, eta egiteke dagoena berrikustea.*
2. *Lehendakaritzarekin landutako asteko gaien errepaso azkarra egin.*
3. *Ekoizpen eta etiketatu ekologikoaren ezagutza zabaltzeko helburuarekin, ekoizleek antolatu eta kontsumitzaileei zuzendutako promozio ekintzak bultzatzeko kontseiluak eman dezakeen babesa erregulatu.*
4. *Eko etiketaren erabilpen gidan aldaketa batzuk onartu produktuaren jatorria eta kontseiluaren lana balioan jartzeko.*
5. *Kontseiluaren finantzazioaz eta ekoizpen ekologikoaren promoziorako baliabideen inguruan hausnarketa irekia.*
6. *Plan sektorialari eta zeharkako laguntza-estrategia baten beharrari buruzko gogoeta egitea.*
7. *Gipuzkoan izoztutako dirulaguntzen inguruan Aldundiari bidalitako idazkiaren berri ematea. GFAko ordezkariari hitza ematea gaiari buruzko gogoeta irekia izateko.*
8. *Galde-eskeak.*
9. *Hurrengo bilera eguna ezarri.*

2025/10/16eko BILKURAREN GAI-ZERRENDAA

1. *Aurreko akta onartzea, eta egiteke dagoena berrikustea.*
2. *Lehendakaritzarekin landutako asteko gaien errepaso azkarra egin.*
3. *EHKolektiboaren egiten ari garen elkarlanaren ingurukoak azaldu.*

4. *Eragileen errolda ofiziala kudeatzeko aplikazio informatikoa, azaldu egoera.*
5. *IHOBERi egindako hitzarmen proposamenaz informatu.*
6. *Nekazal Politikarako Legearen aldaketa..*
7. *Nekazaritza-ustiatzeari aholkularitza emateko erakundeei buruzko dekretu-proiektua.*
8. *Ekologikora trantsiziorako EJRen dirulaguntzak..*
9. *2026 lan egutegia onartu.*
10. *Galde-eskeak.*
11. *Hurrengo bilera eguna ezarri.*

Bilkurez gain, Kontseiluak honako batzar eta deialdi hauetan ordezkari lanak bete ditu:

- **PEPACen jarraipen batzordea:** ENEEK-Ekolurrak Eusko Jaurlaritzaren batzorde honetan parte hartzen du, nekazaritza politika bateratuaren plan estrategikoan aurreikusitako laguntzen eta esku-hartzeen jarraipena egiten den batzordean.
- **Agerraldia Legebiltzarrean:** 2025eko martxoaren 6an, Kontseiluak agerraldia egin du Legebiltzarrean. Agerraldian, helburu nagusia izan da nekazaritza eta elikadura ekologikoek ikuspegi zeharkakoa izan behar dutela adieraztea, nekazaritza ekoizpen ekologikoaren garapenerako erreferentziazko planak badaudela azpimarratzea, plan horiek politikoki babestearen garrantzia nabarmentzea eta, gainera, aurrerapausoak eman diren arren, bidea atzerapenarekin egiten ari dela adieraztea, besteak beste.
- **Foro Akis:** Nekazaritzako Ezagutza eta Berrikuntza Sistemak agroelikadura-arloan dauden erronkei aurre egiteko foroak dira, kontseilutik 2 deialditan parte hartu da. Foro hauen helburua sektore lehiakorra lortzea da, gizartearen eskaeretara eta sektorearen erronketara egokitzeko gai izango dena.
- **Elikadura sistemak iraunkortzen:** Euskal Herrian elikadura iraunkor eta burujabe baten aldeko proiektu asko daude eta Euskal Herri jasangarri baten alde lan egiten duten guztiekin sare bat sortzea eta manifestu bat idaztea da EHNE eta Udalbiltzaren helburua. Nekazaritza ekologikoa kontuan hartu dadin topaketa hauetan parte hartu da.
- **Nekazal Kontseilua:** Eusko Jaurlaritzaren batzorde garrantzitsua da, sektoreko eragile guztiak ordezkatzuta dauden gunea. Bertan, nekazaritza ekologikoaren interesak defendatzen dira, sektorearen garapena eta jasangarritasuna bultzatzeko helburuarekin. Aurten hiru bilera egin dira: apirilean, ekainean eta azaroan, gai estrategikoak lantzeko eta erabakiak adosteko.
- **Behi hazkuntzako plan sektoriala:** Apirilaren 24an HAZIko teknikariekin bildu zen Kontseilua behi-hazkuntzako plan sektorialari buruz hitz egiteko.
- **Landa Garapen Elkarrekin elkarlana sustatu da,** eta Landa Garapen Elkarrekin guztiei kolaborazio eskaintza helarazi zaie, elikadura mahaien inguruko egoera eta interesak identifikatzeko helburuarekin. Bizkaimendik egindako gonbidapenari erantzunez, Bizkaimendiren Plan Estrategikoko lantaldeetan parte hartu da. Halaber, Durangaldeko Elikaduraren Mahaian parte hartu da, eta Lautada Landa Garapen Elkarrekin hartu-eman izan da.

KOMUNIKAZIO ETA SUSTAPEN JARDUEREN EGITARUA

Kontseilutik burutzen diren sustapen eta komunikazio ekintzak 6 lan ildotan biltzen dira barne komunikazioa, ekoizpen ekologikoaren jardura balioan jarri gizartearen, ekoizpen ekologikoaren hazkundera bultzatu EAEn, kontseiluak ziurtatutako elikagai ekologikoen eskaintza bistaratu eta komunikabideekin harremana sortu eta sendotu.

5.1. BARNE KOMUNIKAZIOA

5.1.1 Elkarte eta kontsumo taldeekin harremana sustatu

2025. urtearen hasieran, elkarte eta kontsumo talde ezberdinekin bilerak egin dira, hainbat proiekturen arteko sinergiak bultzatzeko, elkarlanak sustatzeko eta sektoreak dituen behar eta erronka nagusiak identifikatzeko helburuarekin.

Guztira, 15 bilera gauzatu dira honako eragileekin: Anbotopeko, Bio Alai, Urbide, Basagunea, Erikaenea, Erein da Jan, Marisatsa, Biziola, Etartie, Ekoizpen Urduña, Natuaraba, Bionekezaritzza, Ekolur, Biolur eta EHKOLEktiboa.

5.1.2 Barne buletinak

Kontseiluko eragileei zuzendutako bi barne buletin egin eta postaz bidali dira:

Lehenengoari dagokionez, bertan jaso dira nekazaritza ekologikoaren eboluzioari buruzko datu nagusiak, 2024an gauzatutako komunikazio-ekintzen laburpena, Kontseiluan errolatutako eragileen jarraipenari buruzko informazioa, kontzeptu berrien sorkuntzari buruzko iritziz-artikulua, eta Kontseiluak eskaintzen dituen material ezberdinen katalogoa. Bigarren barne buletinari dagokionez, uda amaierarekin batera bidali da. Bertan, honako gai nagusiak jorratu dira: mendi-lurrak nekazaritza ekologikoan ziurtatzeko gida berriaren sorrera; Urduñak, herri gisa, nekazaritza ekologikoa sustatzeko abian jarritako zerbitzua; Noemí Aguirre Quintana Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza diputatuari egindako elkarrizketa; Europar Batasuneko Nekazaritza Ekologikoaren Egunari eskainitako artikulua; EHKOLEktiboarekin elkarlanean

eko lurra Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua **ekologikoa, dena hobetzeko!** www.ekolurra.eus **EKO LURRA BULETINA 2025 I**

Nekazaritza Ekologikoa hazten ari da, baina eboluzionatzen ari ote da?

Azken urteetan jaso ari gaituen informazioa ekologikoa dena, nekazaritza ekologikoa hazten ari da eta eboluzionatzen ari ote da? Hona hemen datuak: 2024an, nekazaritza ekologikoa 10.000 hektareatan zabaldu zen, eta 2023ko datuekin alderatuz, hazteko abiadura handiagoa dela ikus daiteke. Hala ere, nekazaritza ekologikoa ez da bakarrik hazten, baina ere eboluzionatzen ari da. Hona hemen datuak: 2024an, nekazaritza ekologikoa 10.000 hektareatan zabaldu zen, eta 2023ko datuekin alderatuz, hazteko abiadura handiagoa dela ikus daiteke. Hala ere, nekazaritza ekologikoa ez da bakarrik hazten, baina ere eboluzionatzen ari da.

Eragile berrak: 2024an, nekazaritza ekologikoa 10.000 hektareatan zabaldu zen, eta 2023ko datuekin alderatuz, hazteko abiadura handiagoa dela ikus daiteke. Hala ere, nekazaritza ekologikoa ez da bakarrik hazten, baina ere eboluzionatzen ari da.

Eragile berrak: 2024an, nekazaritza ekologikoa 10.000 hektareatan zabaldu zen, eta 2023ko datuekin alderatuz, hazteko abiadura handiagoa dela ikus daiteke. Hala ere, nekazaritza ekologikoa ez da bakarrik hazten, baina ere eboluzionatzen ari da.

Eragile berrak: 2024an, nekazaritza ekologikoa 10.000 hektareatan zabaldu zen, eta 2023ko datuekin alderatuz, hazteko abiadura handiagoa dela ikus daiteke. Hala ere, nekazaritza ekologikoa ez da bakarrik hazten, baina ere eboluzionatzen ari da.

eko lurra Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua **ekologikoa, dena hobetzeko!** www.ekolurra.eus **EKO LURRA BULETINA 2025 II**

Gida berri batek erraztuko die udalei euren mendi-lurretako larreak ekologikokoan ziurtatzea

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua, udalei gida berri bat bidaltzen du, euren mendi-lurretako larreak ekologikokoan ziurtatzeko. Gida honek, udalei gida berri bat bidaltzen du, euren mendi-lurretako larreak ekologikokoan ziurtatzeko. Gida honek, udalei gida berri bat bidaltzen du, euren mendi-lurretako larreak ekologikokoan ziurtatzeko.

Eragile berrak: 2024an, nekazaritza ekologikoa 10.000 hektareatan zabaldu zen, eta 2023ko datuekin alderatuz, hazteko abiadura handiagoa dela ikus daiteke. Hala ere, nekazaritza ekologikoa ez da bakarrik hazten, baina ere eboluzionatzen ari da.

Eragile berrak: 2024an, nekazaritza ekologikoa 10.000 hektareatan zabaldu zen, eta 2023ko datuekin alderatuz, hazteko abiadura handiagoa dela ikus daiteke. Hala ere, nekazaritza ekologikoa ez da bakarrik hazten, baina ere eboluzionatzen ari da.

Eragile berrak: 2024an, nekazaritza ekologikoa 10.000 hektareatan zabaldu zen, eta 2023ko datuekin alderatuz, hazteko abiadura handiagoa dela ikus daiteke. Hala ere, nekazaritza ekologikoa ez da bakarrik hazten, baina ere eboluzionatzen ari da.

abiarazitako lankidetzaren berri; nekazaritza ekologikoan izena eman duten pertsonei zuzendutako ongietorri-saioaren laburpena; Adolfo Beltrán de Guevara eragileari egindako elkarrizketa; eta Sareko ekimenaren berri.


5.1.3 Eragile berriei ongi etorri saioa

Aurten alta eskatu duten eragile berriak aurrez aurre ezagutzeko, eta, aldi berean, Kontseiluak eragile ekologiko guztien eskura jartzen dituen baliabideak aurkezteko helburuarekin, ongi etorri ekitaldi bi antolatu dira. Lehena ekainaren 12an, Amorebieta-Etxanoko gure egoitzan eta bigarrena abenduaren 10ean. Guztira 68 pertsonei luzatu zitzaien gonbitea eta hiru bakarrik interesatu ziran.



5.1.4 Zerbitzuen katalogoa

Zerbitzuen katalogoa eguneratu da, katalogoa ENEEK-Ekolurak eragileei eskaintzen dizkien baliabide eta zerbitzuen bilduma da. Bertan jasotzen dira, besteak beste, etiketa pertsonalizatuak eta dibulgazio-materialak, argitalpenak, erakusketa ibiltaria eta finkoa, prestakuntza eta hezkuntza programak, azoketan parte-hartzea, merkaturatze sarea, diagnostiko-zerbitzua eta egoitzaren erabilera.

[illegible]

5.2. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN JARDUERA BALIOAN JARRI

5.2.1. Komunikazio kanpaina

Aurten, abenduan, elikagai ekologikoak sustatzeko irrati-kanpaina bat egin da, aurreko urteko kanpainan oinarrituta. Kanpaina abenduaren 15etik 31ra bitartean garatu da.

5.2.2. Zuzeneko komunikazioa

Helburua herritarrei nekazaritza ekologikoaren eta elikagai ekologikoen informazioa ematea da. Horretarako xede-talde desberdinak identifikatu dira eta bakoitzarentzako programa bat pertsonalizatu:

- Lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleei zuzenduta: Lurzorua hezkuntza programa.
- Kontsumo taldeei eta bestelako kolektiboei zuzendua: Erakusketa egonkorrera bisita gidatua eta ekoizle batetara bisita edota hitzaldia.
- Nekazaritza eskolei, ostalaritza eskolei, goi-mailako zikloei eta unibertsitateko ikasleei zuzenduta: hitzaldiak.
- Herri desberdinetako udalei, kontsumo-taldeei, ostalaritza eta nekazaritza eskolei eta kultur arloko eskaintzari zuzendua Nekazaritza Ekologikoaren Erakusketa ibiltaria.

Lurzorua hezkuntza egitaraua

Informatuta egon daitekeen kontsumitzaile kolektiboen artean eskola-komunitatea nabarmentzen da; etorkizuneko kontsumitzaile gisa duten garrantziagatik, eskola-munduan elikadura osasungarri eta arduratsuarekiko dagoen sentsibiltatea handitzen doalako eta irakasleek ekoizpen ekologikoari buruz duten prestakuntza eta informazio eskasagatik.

Kontseiluaren helburuen artean hezkuntza-komunitatean presente dago, ekoizpen ekologikoaren hedapenean eta sustapenean erreferentziazko erakunde gisa, prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa propio baten bidez, ikastetxeei tresna aplikagarri eta erabilgarri bat eskaintzeko, ikastetxeko hezkuntza egitarauan sartutako gai horiek lantzeko.

Aurten, Lurzorua programak aurreikusitako 20 jardunaldi egin ditu: 12 udaberrian (2024-2025 ikasturtea) eta 8 udazkenean (2025-2026 ikasturtea). Guztira, 2025an, 504 ikaslek parte hartu dute programan.

Egitaraua Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak Amorebieta-Etxanoko Udalarekin duen hitzarmenaren barruan dago, honengatik Amorebietako ikastetxeek dute parte hartzeko lehentasuna.

EGUNA	ESKOLA
20/03/2025	Eskurtze ikastetxea (Bilbo)
21/03/2025	Eskurtze ikastetxea (Bilbo)
07/04/2025	Eskurtze ikastetxea (Bilbo)
08/05/2025	Jesuitak (Durango)
13/05/2025	El Carmelo ikastetxea (Amorebieta)
14/05/2025	Jesuitak (Durango)
23/05/2025	Jesuitak (Durango)
02/06/2025	Eleizalde ikastola (Bermeo)
03/06/2025	Eleizalde ikastola (Bermeo)
10/06/2025	Bizkotxalde ikastetxea - 2 talde
27/10/2025	Karmengo ama ikastetxea Amorebieta Etxano
28/10/2025	Karmengo ama ikastetxea Amorebieta Etxano
29/10/2025	Urretxindorra - Muxika
30/10/2025	El Carmelo ikastetxea (Amorebieta)
31/10/2025	Andra Mari ikastetxea (Amorebieta)
03/11/2025	Andra Mari ikastetxea (Amorebieta)
04/11/2025	Lauxeta ikastola (Amorebieta)
05/11/2025	Lauxeta ikastola (Amorebieta)
06/11/2025	Lauxeta ikastola (Amorebieta)
10/11/2025	Lauxeta ikastola (Amorebieta)



- **Lurzorua – Ikaslearen gidaliburua**

Lurzorua egitarauan parte-hartzaileei eskuliburu bana ematen zaio. Eskuliburuan egunean zehar jasoko dituzten datuak daude eta landa ekosistema ekologikoaren osasun diagnostikoa egiteko prozedura jasotzen du. Irakasleei jarduera egunaren aurretik ikasleekin irteera prestatzeko

emailez gidaliburua bidaltzen zaie. Ikasleek egunean zehar erabiltzen duten gida berrinprimatu da baina berdin mantendu da, ez da aldaketa nabarmenik egin.

Gure nekazar ekosistemaren osasuna

ERAZKETA	ERAZKETA	ERAZKETA	ERAZKETA	ERAZKETA	ERAZKETA
1	2	3	4	5	6
1.1. Nekazaritza ekologikoa	1.2. Nekazaritza ekologikoa	1.3. Nekazaritza ekologikoa	1.4. Nekazaritza ekologikoa	1.5. Nekazaritza ekologikoa	1.6. Nekazaritza ekologikoa
2.1. Nekazaritza ekologikoa	2.2. Nekazaritza ekologikoa	2.3. Nekazaritza ekologikoa	2.4. Nekazaritza ekologikoa	2.5. Nekazaritza ekologikoa	2.6. Nekazaritza ekologikoa
3.1. Nekazaritza ekologikoa	3.2. Nekazaritza ekologikoa	3.3. Nekazaritza ekologikoa	3.4. Nekazaritza ekologikoa	3.5. Nekazaritza ekologikoa	3.6. Nekazaritza ekologikoa
4.1. Nekazaritza ekologikoa	4.2. Nekazaritza ekologikoa	4.3. Nekazaritza ekologikoa	4.4. Nekazaritza ekologikoa	4.5. Nekazaritza ekologikoa	4.6. Nekazaritza ekologikoa
5.1. Nekazaritza ekologikoa	5.2. Nekazaritza ekologikoa	5.3. Nekazaritza ekologikoa	5.4. Nekazaritza ekologikoa	5.5. Nekazaritza ekologikoa	5.6. Nekazaritza ekologikoa
6.1. Nekazaritza ekologikoa	6.2. Nekazaritza ekologikoa	6.3. Nekazaritza ekologikoa	6.4. Nekazaritza ekologikoa	6.5. Nekazaritza ekologikoa	6.6. Nekazaritza ekologikoa

Oinarriko ebaluaketa - azken nota

Hobeto emaitza berritu duzu? ☐ Hobeto datatuta uste duzu? ☐

Hobeto? ☐

Berriro emaitza berritu duzu? ☐

21



Talde interesdunei erakusketa egonkorrera bisita egiteko eskaintza

Urtean zehar Kontseiluaren egoitzan kokatuta dagoen erakusketara eta inguruko baserrietara bisitak antolatu dira, ikasle, kontsumitzaile eta bestelako kolektiboek zuzenduak. Erakusketa egonkorreko bisita gidatuaren bidez Euskadiko ekoizpen ekologikoaren eta elikagai ekologikoen ezagutza eta informazioa sustatzen da eta aldi berean, produktu horiek ekoizteko, transformatzeko eta lantzeko prozesuak bertatik bertara ezagutzeko aukera eskaintzen da.

Kontseiluaren egoitzan dagoen erakusketarako, euro hosto handi bat ekoiztu da aretoaren goi aldean jartzeko, bisitariak euro hostoaren irudia modu inkontzientean barnera dezaten. Gainera, erakusketan zintzilik ditugun lur planetaren eta sagarraren segurtasun ikuskaritza ere egin da.

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren kontseiluan kokatuta dagoen erakusketa finkoa ezagutu ondoren, eredu ekologikoan lan egiten duten baserritarrei bisita egiteko eskaintza ematen zaie taldeei. Urtean zehar guztira 13 bisita jaso ditugu.

EGUNA	BISITAK
16/01/2025	Botikazar bhi (Bilbo)- Batxillergoa
24/01/2025	Lantegi Batuak (Amorebieta)
11/03/2025	Barakaldo LH - Goi Maila Dietetika
12/03/2025	Ibarrekolanda bhi (Bilbo)
18/03/2025	Meatzaldea LH (Trapagaran) Cocina y restauración
19/03/2025	Barandiaran BHI - Goi Maila Dietetika
01/04/2025	Karmengo Ama ikastetxea (Amorebieta)
02/04/2025	Karmengo Ama ikastetxea (Amorebieta)
23/10/2025	Barakaldo LH - Goi Maila Dietetika
25/11/2025	Lea Artibai ikastetxea (Markina) - Tecnología de los alimentos-Goi maila
11/12/2025	Trueba ikastetxea. DBH1/A
29/11/2025	Arkauteko Nekazaritza Eskola Paisajismo y M.Rural eta Agroecologíako 2.maila
11/12/2025	Trueba ikastetxea. DBH1/B



5.2.3. Hitzaldi eta mahai- inguruak

Talde bakoitzari egokitutako dibulgazio-hitzaldiak eskaini dira, nekazaritza eta elikadura ekologikoaren inguruko ezagutzak zabaltzeko, euro hostoa ezagutarazteko eta eredu ekologikoaren onuren kontzientzia sustatzeko.

Zenbait hitzalditan ekoizle gonbidatuak eraman dira haien ogibideari buruzko azalpenak zuzenean jasotzeko eta beste hitzaldi batzuetan elikagai ekologikoen degustazioa izan da hitzaldiaren ostean.

Hitzaldiak

EGUNA	TOKIA
03/02/2025	Artzain Eskolako ikasleak - Gomiztegi
20/02/2025	Galdakaoko Ostalaritza Eskola
24/02/2025	Calasanz ikastetxea - Goi Maila Integración Social ikasleak
07/03/2025	Artzain Eskolako ikasleak – Aitor Urienen baserrian bisita
10/03/2025	Gamarra Ostalaritza Eskola (Gasteiz) Euskeraz
10/03/2025	Gamarra Ostalaritza Eskola (Gasteiz)- Gazteleraz
14/03/2025	CEPA Santurtzi (Santurtzi)
18/03/2025	EHU - on line
25/09/2025	Bio Alai Kontsumo taldean (Vitoria Gasteiz)
08/10/2025	Derioko Nekazaritza Eskola - Erdi Maila 2. Agroekologia Abeltzaintza
21/10/2025	Derioko Nekazaritza Eskola-Goi Maila 2. maila Paisajegintza
14/11/2025	Zarauzko azokan Kontsumitzaileei zuzendua
26/11/2025	Leioako Ostalaritza Eskola. Euskeraz
26/11/2025	Leioako Ostalaritza Eskola- Gazteleraz
02/12/2025	Bilboko Goi Mailako Ostalaritza Eskola - Artxanda
04/12/2025	Egibide Ostalaritza Eskola (Vitoria Gasteiz) - Goi mailako zikloa
04/12/2025	Egibide Ostalaritza Eskola (Vitoria Gasteiz) - Erdi mailako zikloa



Mahai-inguruak

Agroekologiaren aldeko Udalerrien Sarearen Urteroko Topaketa

Azaroaren 13tik 15era, Urduñan, Agroekologiaren aldeko Udalerrien Sarearen Urteroko Topaketa burutu da. Topaketak tokiko politika agroekologikoak partekatu eta balioan jartzeko, baita gure herrietako trantsizio agroekologikoan sakontzeko ere, aukera paregabea eskaini du. Programazioa aberatsa izan da, eta ekimen ugariaren artean, “Agroekologia agenda sozial eta politikoan: erronkak eta aukerak” izeneko mahai-ingurua antolatu da. Bertan, Kontseiluak Judit Gartzia eta Xabier Lejarzegiren eskutik parte hartu dute.

Irizpide agroekologikoak definitu eta gizarteratzeko tresnak: Berme Sistema Parte hartzaileak (UEU ikastaroa)

Ekainaren 19an Kontseiluak UEUk antolatutako ikastaroan parte hartu du. Bertan nekazaritza ekologikoan oinarritutako agroekologia bultzatzeko tresnei buruz hitz egin da, bereziki Berme Sistema Parte-hartzaileari buruz (BSP). Helburua BSPen garrantziaz kontzientziaztea, ekoizpen eta kontsumo eredu agroekologikoa balioan jartzea izan da.

Vitoria-Gasteizko Elikagai-Sektoreko Estrategia

Vitoria-Gasteizko udalak Elikadura-sistemari aplikatzen zaion araudia aztertzen aritu da eta antolatu diren bilera desberdinetan parte hartu dugu sistema iragateko ekintza-palankak zein diren identifikatzen lagunduz. 2 talde fokaletan parte hartu dugu: 1: Merkatua, merkaturatzea eta gobernantza eta 2. Produkzio-ereduaren eraldaketa.

Switch proiektua: jantoki kolektiboak eta iraunkortasuna

Maiatzaren 7an, Tabakaleran SWITCH proiektua aurkeztu da jantoki kolektiboak eta iraunkortasuna ardatz dituen, elikadura-eredu arduratsuagoak sustatzeko, ingurumen-inpaktua murrizteko eta kudeaketa jasangarriagoak bultzatzeko helburuarekin. Saioak aukera eman du eskola-jantokien egungo erronkak aztertzeko eta etorkizunera begira ekintza zehatzak identifikatzeko. Saioa dinamika batekin bukatu da.

5.2.4. Erakusketa ibiltaria

“Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da” lelo duen erakusketa EAEko leku berrietan kokatu da, hala nola, sukaldaritza eskola, Ekoetxea, Kontsumo talde zein azoka profesionaletan:

EGUNA	TOKIA
13/01/2025	Azpeitiko Ekoetxea (urtarrilak 13-otsailak 03)
05/02/2025	Galdakaoko Ostalaritza Eskola (otsailak 05-otsailak 24)
28/04/2025	Bergarako Erikaenea (28 apirila-maiatza 19)
09/07/2025	Bio Alai Kontsumo taldean (Vitoria Gasteiz) (uztailak 9-irailak 30)
13/11/2025	Zarautzko merkatuan erakusketa ibiltaria (azaroak 13 - azaroak 24)

Erakusketaren helburua jendarteari ekoizpen ekologikoari buruzko ikuspegi osoa helaraztea da; eskaintzen dituen abantailak eta ingurumenari ekartzen dizkion onurak azaltzea. Hortaz, ingurumenarekin nolabaiteko kezka duen edo tokiko elikagai ekologikoekiko interesa duen edonori informazio ulergarria helaraztea da xede nagusia.



Paneletan ekoizpen ekologikoari buruzko hainbat datu eta informazio zabaltzen dira; elikagai ekologikoek dituzten onurak eta eredia ekologikoak abeltzaintzan dituen onurak ere; izan ere, ez dago animalien ongizate maila altuagoa duen abeltzaintza sistemarik, eta berori da karbono aztarna txikiena uzten duen ekoizpen sistema.

Erakusketa 14 bideo motzen bidez osatzen da. Lehen QR bidez paneletako informazioa sakontzeko irakurtzeko informazioa ematen zen eta orain bideo motzen bidez era atsegina da.

5.2.5. Dibulgaziorako materiala

Erakusketa ibiltariko bi panelen eguneraketa

Nekazaritza ekologikoarekin dena hobetzen da erakusketa ibiltarian bi panelen datuak zaharkituta geratu ziren eta horiek eguneratu dira.

Nekazaritza ekologikoaren inguruko bi bideoen eguneraketa

Erakusketa ibiltariko paneletan dauden bideoetariko bi moldatu behar izan dira 2024ean Ekolurra bereizgarriaren inguruan hartutako erabakiaren ondoren.

Erakusketa ibiltariko eskuorriaren inprenta

Azoka profesionaletan, hitzaldietan eta kontseiluak antolatzen dituen ekintzetan banatzen den eskuorria berrinprimatu da, 1.000 esku orri hau produktuen argudio orriekin batera banatzen da. Honetan elikagai ekologikoak zer diren, zergatik diren onak eta ekoizpen ekologikoaren printzipioak jasotzen dira besteak beste.

Euskal sagardo ekologikoaren euskarria

2024an egin ziren euskal sagardo ekologikoaren euskarriaren eskarira sagardotegi gehiago batu dira 2025ean. Sagardotegi guztietako kupelen neurriak berdinak ez direnez, euskarria beste neurri batzuetan ere ateratzeko eskaria egin dute sagardogileek eta hori horrela, tamaina

txikiagoko euskarriak ekoiztu dira 2025ean. Guztira 25 euskarriren ekoizpena egin da. Euskarrien ekoizpenaren kostua Euskal Sagardoa Kontseilu Arautzailearekin erdi bana partekatu da.



5.2.6. Agroekologia

EHKOlektiboarekin elkarlana

Kontseiluak eta EHKOLEktiboak hitzarmena sinatu dute agroekologia sustatzeko helburuarekin. Nekazaritza ekologikoa oinarri duen agroekologia zer den argitzeko hiru saio antolatu dira; irailaren 25ean Kontseiluaren egoitzan Amorebieta-Etxanon, urriaren 2an Azpeitiko Elikagunean eta urriaren 9an BioAlai kontsumo taldean Gasteizen.

Topaketek nekazaritza ekologikoa eta agroekologia zer diren argitzen lagundu dute, elikagaien merkataritzan erabiltzen diren izendapenen atzean dagoena azalduz. Saioretan ekoetiketa ofizialaren balioa eta EHKOLEktiboaren irizpide agroekologikoak azaldu dira, eta beste izendapen lausoen inguruko kontzientziazioa landu da. Parte-hartzaileek —ekoizleak, dendak, kontsumo taldeak eta sektoreko eragileak— halako espazioen beharra azpimarratu dute. Elkarlana oso positibotzat jo da.





5.2.7. Sare sozialak eta webgunea

Gaur egun, sare sozialen eragina gero eta handiagoa da kontsumitzaileen artean, bereziki gazteenengan, eta pixkanaka eragin hori gizarte osoan zabaltzen ari da. Testuinguru horretan, sare sozialak tresna estrategiko gisa erabiltzen dira elikagai ekologikoen kontsumoa sustatzeko eta jendartearen elikagai ekologikoekiko kontzientzia zabaltzeko. Helburu nagusia euro hostoa jendarteratzea da. Horrez gain, gaur egun, herritar gehienak Interneten bilatzen du informazioa eta beraz oso garrantzitsua da Interneten gure presentzia eta informazioa izatea ekolurra.eus webgunearen bitartez.

Sare sozialetan nekazaritza ekologikoaren inguruko edukiak bermatzeko astero ekintza desberdinak egin dira, astean gutxienez bi. Helburua da kontsumitzaileei eredu ekologikoaren berri ematea, etiketatzearen inguruan informazioa partekatzea, elikagai ekologikoak balioan jartzea eta elikagai ekologikoen kontsumoa sustatzea besteak beste.

Kontseiluaren webguneari dagokionez —ekolurra.eus— webgunearen eguneratze eta funtzionamendu egokia bermatuko duen agentzia bat kontratatu da. Webgunea da kontsumitzaileentzat elikagai ekologikoei buruzko informazioa, berriak, jarduerak eta bestelako edukiak kontsultatzeko erreferentziazko gunea. Webguneko edukien lanketa eta eguneraketa egin da: blogeko sarrerak, berriak, gaurkotasuneko edukiak, jarduera-egutegia eta bestelako informazio eguneratua prestatu eta argitaratzeaz arduratu da.



5.2.8. Merchandising

Aurten merchandising desberdinak ekoiztu dira: boligrafoak, kamisetak, telazko poltsak, sukaldatzeko egurrezko koilarak, banderolak eta karpak, ekoizpen ekologikoa ikusgarriago egiteko, Kontseiluaren irudia indartzeko eta dibulgazio zein sentsibilizazio ekimenak laguntzeko helburuarekin.

5.2.9. Ekintzak lagundu

Eskola Publikoaren Jaia

2025eko ekainaren 1ean Eskola Publikoaren Jaia ospatu da Urduñan eta Ikasleen Guraso Elkarateak erreketak elikagai ekologikoak izatea eskatu dute. Hori horrela, Urduñako udalaren, HAZIren eta Belardiren laguntzarekin erreketak ekologikoa antolatu da.

Araban Euskaraz

Ekainaren 15ean, Ikastolen Elkarateak eta Arabako zortzi Ikastolek antolatuta, Araba Euskaraz jaiaren edizio berria ospatu da Olarizun (Vitoria-Gasteizen) "ETENGABE" lelopean. Araba Euskaraz Tonbola ekimenerako elikagai ekologikoz osatutako saski handia prestatu da.

Amorebieta-Etxanoko Santiago Azoka

Santiago Azoka Urtero ospatzen da Amorebieta-Etxanon uztailaren 25ean, eta nekazaritza eta abeltzaintza tradizionalaren azoka garrantzitsua da. Elikagai ekologikoen salmenta sustatzea helburu, ekoizle ekologikoei egindako erosketa bakoitzarekin bono bana banatu dira. Eguerdian Durangaldeko ekoizleen elikagai ekologikoen otarraren zozketa egin da banatutako bonoen artean.

Aramotz Mendi Lasterketako babesletza

Urriaren 18an Aramotz Mendi Lasterketaren edizio berria ospatu da Amorebieta-Etxanon eta Kontseilutik Durangaldeko elikagai ekologikoz betetako 6 otar prestatu dira.



Gaztea irratian abenduko zozketen babesletza

ETBko Gaztea Irratiarekin kolaborazioan elikagai ekologikoz betetako saskiak zozketatu dira herritarren artean nekazaritza ekologikoa balioan jartzeko eta elikagai ekologikoaren eskaintza ikusarazteko helburuarekin. Hori horrela, Europar Batasuneko Nekazaritza ekologikoaren Egunean otar handi bat banatu da eta abenduan zehar 4 otar handi.

Mimintzepe Baserrian ate ireki saioa

Maiatzaren 24an, Iker Yurrebaso eragileak bere etxaldean antolatutako ate irekien jardunaldian parte hartu dugu. Jardunaldiaren helburu nagusia bere bezeroek, familia eta lagun giroan, egunerokoan kontsumitzen dituzten barazkiak non eta nola ekoizten diren bertatik bertara ikustea izan da. Ekimen hori baliatuz, guk kontseilu gisa aprobetxatu genuen aukera Euskadiko ekoizpen ekologikoaren inguruko informazioa eskaintzeko, ekoizpen-sistemaren ezaugarriak, araudia eta nekazaritza jasangarriaren onurak azalduz.



Basaldea, Elikaduraren inguruko topaketa

Vitoria-Gasteizko udalak Elikaduraren XVIII. Gizarte Topaketa antolatu du urriaren 21etik 27ra bitartean. Urriaren 25ean Basaldean ate irekien jardunaldia egin da eta bertan parte hartu dugu nekazaritza ekologikoaren informazioa eta Kontseiluaren eginkizunaren azalpena emanez.

Subsierra elkarteak antolatuta Iberdrola dorrean Showrooma

Subsierra elkarteak antolatutako *Cata de Territorios: Subsierra y Corpinnat* ekitaldian Kontseilua egon da urriaren 20an, Bilboko Iberdrola Dorreko 29. solairuan. Feria txiki edo show room formatuko topaketa honetan, Subsierra eta Corpinnat-eko upategiek parte hartu zuten, bakoitzak bere mahaian bisitariei ardoen dastaketa librea eskainiz. Inaugurazioa Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak eta Subsierra eta Corpinnat-eko lehendakariak egin zuten.

Errioxako kontseiluan hitzaldia Sareko proiektuaz.

Azaroaren 26an CPAER kontseiluak ikastaro bat prestatu du Errioxako eraileek eskatuta sustapenerako eta kanpo-merkatuak eskura daitezkeen laguntzei buruzko ezagutzak sakontzeko, bai eta beste autonomia-erkidego batzuetako arrakasta-kasuak aztertzeko. Honi dagokionez, Sareko azaltzeko eskaera jaso dugu CPAER kontseilutik.

HoBBea

Abenduaren 14ean Eibarko Errebal plazan antolatu den topaketan parte hartu da. Bertan, BLE, Biolur eta Hazialdeko elkarteek HoBBea proiektua aurkeztu dira.

Topaketa honetan ogi artisau ekologikoaren inguruan jardun da begirada ezberdinetatik dituen balioak plazaratuz eta gure lurraldean elikadura, osasuna eta kontsumoaren arloan dauden eragile ezberdinekin konpartitu eta elkarriketarako gunea sortuz.

Saioan batik bat ogigintzako eragileak, ikerlariak, sukaldariak, nutrizionistak eta osasungintza arloko pertsonak bildu dira.



5.3. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN HAZKUNDEA BULTZATU EAEN.

5.3.1. Sektoreko teknikariek jardunaldi tekniko

Apirilaren 11an, Kontseiluak Amorebieta-Etxanoko Jauregibarria Baserrian duen egoitzan bilera tekniko bat antolatu du araudi ekologikoaren inguruan izan daitezken zalantzak argitzeko. Aholkularitza lanetan aritzen diren teknikariek araudiaren inguruan dituzten zailtasunak partekatzea eta argitzen saiatzea izan da helburua. Kontseilutik kontrol eta ziurtapen arloko lantaldeak parte hartu du.



5.3.2. Mahastigileekin bilera tekniko



Apirilaren 2an, Kontseiluko teknikari talde bat Luis Cañas upategira joan da, upategi horretara mahatsa eramaten duen mahastigileen taldearen alta bideratzeko.

Saioaren hasieran, ekoizpen ekologikoari eta Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko informazioa eman zaie, eta ondoren alta eskaerak betetzeari ekin zaio. Guztira, 10 alta burutu dira goizean zehar.

5.3.3. Behi hazkuntzako plan sektoriala

Apirilaren 24an HAZIko teknikariek bildu gara behi-hazkuntzako plan sektorialari buruz hitz egiteko.

5.3.4. Belardira irteera

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilutik urriaren 17an Belardi Haragiaren Transformazio Zentrora bisita antolatu da, Urduñan. Proiektu estrategiko garrantzitsu hau gertutik ezagutzeko aukera gure eragileekin eta sektorean lanean dauden teknikariek partekatu da.

Belardi zentroak, abeltzaintzako produktuak jatorrian eraldatzeko aukera ematen du, bitartekariak saihestuz eta ekoizten dutenentzat balio erantsia handituz. Azpiegitura hori funtsezkoa izan da salmenta-kanal iraunkorrak bermatzeko, ustategien errentagarritasuna hobetzeko eta tokiko ekonomia indartzeko.

Bisita hau ezagutzak partekatzeko eta tokiko elikadura-proiektu estrategikoak ezagutzeko aukera paregabea izan da. Belardin prestatzen diren elikagaien dastaketarekin amaitu da bisitaldia.



5.3.5. Mendi lurretako larreak ekologikoan izen emateko gida

Kontseiluak gida praktiko bat prestatu du EAEko udalei eta kontzejuei euren mendi-lurretako larreak ekologiko gisa ziurtatzeko prozesua errazteko.

Gida honek aurrerapauso garrantzitsua dakar abeltzain eta ekoizle ekologikoentzat, izan ere, lur horiek Europako araudi ekologikoaren babespean erabiltzea ahalbidetzen du, berme handiagoekin eta karga administratibo txikiagoarekin. Kontseiluaren beraren ekimenez sortu da gida hau, zenbait udalerrrik beren mendi-lurretako larreak ziurtatzeko duten interesa jaso ondoren.

5.3.6. Busturialdea-Urdaibaiko lehen sektorea dinamizatzeko lan taldea

Kontseiluak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Zerbitzuak eta Urremendi Landa Garapenerako Elkartek 2020tik parte hartu dute Urdaibaiko nekazaritza-jarduera dinamizatzeko lan taldean, eskualdeko eta Biosfera Erreserbaren balioekin bat etorritik, Hazi, Jangurie, Lorra eta Neikerrekin batera.

2021ean Busturialdea-Urdaibaiko Nekazaritzako Elikagaien Estrategia 2030 onartu zen, sektore berritzaile, gaztetu eta lurraldean errotua sustatzeko helburuarekin. Horren ondorioz, tokiko nekazaritzako elikagaien sektorea dinamizatzeko Ekintza Plana abian jartzea adostu zen, lurra eskuratzea, eragile berrien sarrera, sektorearen profesionalizazioa eta tokiko, ekologiko eta sasoiko produktuen banaketa ardatz hartuta. Aurten ere, kontseiluak lan taldean parte hartzen jarraitu du.

5.3.7. Landare ekologikoaren hornikuntzari buruzko lanketa

Landare ekologikoaren hornikuntzari buruzko proiektu pilotu baten diseinurako aurretiazko lana egin da. Horren baitan, Hendaian aurrez aurreko jardunaldi batean parte hartu da, gai bera beste ikuspegi batetik lantzen duen ekimen bati lotutako nekazari eta mintegilariekin batera. Jardunaldi horren helburua arazoaren ikuspegia beste begirada batzuekin aberastea izan da, beste proposamen hori nola planteatzen den ulertzea, balizko sinergiak identifikatzea eta haren indarguneei zein mugei buruzko lehen inpresioak jasotzea.

Ondoren, mintegilariekin bilera bat egin da, gaur egun ekoizpen-erabakiak nola hartzen diren sakonago aztertzeko, zein muga diren benetan errealak eta zer baldintza bete beharko liratekeen aldaketa jakin batzuk bideragarriak izan daitezkeen. Urrats horrek aukera eman du arazoaren ulermena horniduraren jatorritik bertatik fintzeko.

Geroago, nekazariarekin bilera bat egin da, erabilera-erabakiak praktikan nola hartzen diren aztertzeko: zein unetan hautatzen edo baztertzen den plantel ekologikoa, zer baldintza bete behar diren aldaketa hori bideragarria izan dadin eta zein muga direla eta proposamen on batek ez duen azkenean aplikaziorik lortzen. Bi bileren helburua izan da irtenbide bat atzerapausorik sortu gabe onartua izan dadin zer egiaztatu beharko litzatekeen identifikatzea.

Bildutako informazioarekin, proiektu pilotuaren proposamen bat landu da, trantsiziorako gailu gisa ulertua, non hainbat irtenbide modu osagarrian jarduten duten.

Pilotua ez da neurri bakar gisa planteatu, baizik eta elkarrekin koordinatutako ekintza-multzo gisa: batzuk desoreka estrukturalak zuzentzera bideratuak, eta beste batzuk aldaketa laguntzera eta haren pixkanakako adopzioa erraztera. Konbinazio hori funtsezkoa da pilotua arrakasta-puntu bakar baten mende egon ez dadin eta denboran zehar iraunkorra izan dadin.

Azkenik, Kontseiluarekin bilera bat egingo da, kontrastatzeko eta proiektu pilotuaren oinarriak, helburuak eta jarraipen-irizpideak zehazteko. Lana amaitzeko, sintesi-txosten bat landuko da, ondorio nagusiak eta ondorioztatutako proiektu pilotuaren proposamena jasotzen dituen.

5.4. KONTSEILUAK ZIURTATUTAKO EKO ELIKAGAIEN ESKAINTZA BISTARATU.

5.4.1. EKOEUS azoka profesionalak Euskadin

Bioterra

Bioterra azokaren XXII. edizioa ospatu da Irungo Ficoban ekainaren 6,7 eta 8an. 2025ko Bioterra azokan EAEn ziurtatutako 4 eragilek parte hartu dute baina aurten Kontseiluak ez du zuzenean haien gunea erreserbatu, kudeaketan lagundu da. EAEko 4 ekoizlek parte hartu dute aurten Bioterran. Kontseiluak 36 m²-ko gunea propioa izan du, eta bertan nekazaritza ekologikoari buruzko informazioa eman da erakusketa panelen bitartez eta EKO GURPILaren jolasaren bitartez.

Bioterra Euskadiko elikagai ekologikoaren profesionalentzat topagune garrantzitsua da. Kontseilua Bioterrako antolatzaile-batzordean dago; hala, azoka hauen antolaketan aktiboki parte hartzen du. Bioterra. 22. edizio honetan guztira 9.367 bisitari gerturatu dira. Bioterra Azokan elikagai ekologikoen showcooking bat antolatu da azokan parte hartu zuten ekoizle ekologikoen produktuekin. Showcooking ekintzarako sukaldari bat kontratatu da.

Azkenik, umeentzako landare-tailerra ere eginda; oso garrantzitsua da familiek eta haurrek nekazaritza ekologikoaren eta elikagai ekologikoen inguruko informazioa jasotzea.

Azkenik, azokak iraun duen 3 egunetan egun bakoitzean elikagai ekologikoz osatutako 3 saski zozketatuko dira, guztira 9 saski. Kontseiluaren informazio gunean arreta emateko pertsona baten kontratazioa egin da.


Beste urteetan bezala, Euskadiko Kontseilu Arautzaileko kide diren Gipuzkoako enpresa erakusketariak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurune Departamentuaren babesa jaso zuten.

Bioaraba

Bioaraba azoka azaroaren 21etik 23ra ospatu da Vitoria-Gasteizko Manuel Iradier pabiloian, eta guztira 12.000 bisitari baino gehiago bertaratu dira. Kontseiluak informazio gunea bat antolatu du nekazaritza ekologikoari eta elikagai ekologikoei buruzko informazioa eskaintzeko. Horrez gain, erruletari esker informazioa modu atseginagoan ematen da. Erruletan 5€ko bonoen banaketa egin da elikagai ekologikoen kontsumoa sustatzeko helburuarekin.

Larunbat goizean, bisitariei zuzendutako pasta ekologikoaren tailer bat antolatu genuen, esperientzia praktikoa baten bidez eredu ekologikoari buruzko informazioa zabaltzeko.

Bioterran bezala aurten ez da eragileentzako gunearen erreserba egin BioAraban. Espazioaren kudeaketarako langutza eskaini zaie. Guztira, EAEko 5 ekoizlek parte hartu dute.



5.4.2. EKOEUS azoka profesionalak Euskaditik kanpo

BioCultura Barcelona eta Madrid

2025ean Kontseilutik ez da Biocultura Barcelona eta Madrid erakustazoketarako gunerik erreserbatu. Interesa duten ekoizleei deialdia emateaz gain espazioaren kudeaketa egiteko laguntza eskaini zaie

5.4.3. Udako azoka ekologikoak

Udako azokak duela hogeit hamar urte baino gehiagotik antolatzen dira EAEn. Tokiko ekoizle ekologikoentzat salmentarako eta kontsumitzaileekin duten harreman zuzena sendotzeko erakusleioa dira. Azoka hauek Biolur, Bionekazaritza, Ekolur eta Marisatsa elkarteekin batera

kudeatzen dira. Elkarre bakoitzak azoka jakin batzuk antolatzen ditu eta Kontseilua azoken kanpaina bateratzeaz eta publizitatea kudeatzeaz arduratzen da.

2025ean 15 azoka zeuden aurreikusita baina azkenean 13 antolatu dira. Azokak Gasteizen, Zigoitian, Zarautzen, Zumaian, Donostian, Oreretan, Algortan, Zerainen, Mungian, Azpeitian, Eibaren eta Durangon izan dira.

Kontseiluak azokak antolatzen dituzten elkarteekin elkarlanean komunikazio kanpainaren kudeaketaz, prentsarekin harremanaz eta kartelen diseinuaz arduratzen da. Horrez gain, azoketan antolatzen diren zenbait erreketak, tailer eta degustazio finantziatzen ditu.

Aurten udako azoka ekologikoen kanpaina ondorengo medioetan egin da:

- **Sare sozialetan**, Facebook eta Instagramen: eskualdeko 13 udalerrien arabera segmentatuta. Eibar hartu da erdigune eta hortik 75km-tara zabaldu zen. Xedetaldia 35-65 urteko herritarra aukeratu da. Kanpaina irailaren 2tik 27ra izan da martxan.
Udako azoka ekologikoetako azoketan parte hartu ohi duten ekoizleekin bideo labur bat sortu zen aurreko urtean eta bideo bera aprobetxatu da aurten ere publizitatea egiteko.
- **Euskadi Irratian, Radio Euskadi eta Gaztean** 20"-ko kuña igorri da. Irratirako iragarkia bi ahotsetan ekoiztu zelarik; Euskadi Irratia, Radio Euskadi eta Gaztea. Abuztuaren 28tik irailaren 11ra arte. Guztira 60 kuña izan dira. Gainera, Nekazaritza Ekologikoa Egunarekin bat eginik Gaztean otar ekologikoa zozketatu da eredu ekologikoaren Informazioa ematen zuten bitartean eta azoka ekologikoetara joateko gonbitea luzatzen zuten bitartean.


Kanpainak guztira instagramen 97.104 erreprodukzio izan ditu eta Facebook-en 146.200 erreprodukzio. Irismenari dagokionez, kanpaina guztira instagramen 25.987 pertsonengana heldu ta eta Facebooken 12.830 pertsonengana. Udako Azoka Ekologikoen kanpaina elkarteekin batera koordinazioan kanpaina diseinatzeko eta burutzeko Kontseiluko Komunikazio teknikariaren dedikazioa izan da.

Azken urtean erabilitako Udako Azoken irudia mantendu da azoka ekologikoen irudia egonkortze aldera. Bide batez, Kontseiluak identifikazio- eta sustapen-material komuna jarri zuen azoka guztietan eskuragarri azoka multzo osoa unitate bat bezala aurkezteko helburuarekin. “Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da” eskuorriak eta ekoizpen ekologikoaren informazio orokorra ematen duen triptikoa ere banatu dira.



Ekimena erakargarriagoa izateko eta elikagai ekologikoak ezagutarazteko azoka batzuetan dastaketak eta showcooking-ak antolatu dira.

2025/08/22	Zarautz- elikagai ekologikoen showcooking-a
2025/08/29	Zumaia- elikagai ekologikoen showcooking-a
2025/09/13	Errenteria- elikagai ekologikoen showcooking-a
2025/09/21	Zerain- elikagai ekologikoen showcooking-a
2025/09/27	Mungia- erreketak ekologikoa
2025/10/04	Gasteiz- elikagai ekologikoen showcooking-a
2025/10/11	Eibar- elikagai ekologikoen pintxo dastaketa



Azkenik, Kontsumitzaileen fluxua handitu eta salmentak bultzatzeko helburuarekin, elikagai ekologikoen erosketa-bonoak banatu dira 9 azoketan. 5 euroko 440 bono ekoitzi ziren guztira, azokako 45 bono aurreikusita. Hala ere, horietako 4 azokatan ez dira bonoak banatu. Guztira, udako azoka ekologikotan 292 bono erabili dira. Bonoak Azoka Ekologikoa antolatu diren herrietako Turismo Bulegoaren bitartez, Udalaren bitartez edota azokako antolatzaileen bitartez banatu ziren herritarrei azoka eguna aurretik.





5.4.4. SAREKO. Salmenta puntuen mapa eta Merkaturatze Sarea

Salmenta Puntuen Mapa

2024an kaleratu zen Sareko salmenta-puntuen mapa, eta 2025ean zehar maparen erabilera sustatu eta bilatzailearen berri eman da. Horrez gain, mapa eguneratuta mantendu da. Tresna honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan elikagai ekologikoak non eskuratu daitezkeen bistaratzea da. Ekimenaren xedea kontsumitzaile askok egiten duten galdera honi erantzutea da: “Non eskuratu ditzaket bertako ekoizle eta eraldatzaile ekologikoen elikagaiak?”

Bilatzailean, batez ere, zirkuitu laburrean saltzen dituzten ekoizleen salmenta-guneak bistaratzea izan da helburua. Maparen berezitasun nagusia da informazioa ekoizleek beraiek sartzen dutela, horrela, erosleari datuak zuzenean jasotzea ahalbidetzen zaio.

Ekoizle bakoitzari erabiltzaile-izena eta pasahitza eman zaizkio, eta horren bitartez salmenta-puntuak eta eskaintza eguneratu ditzakete. Ekoizleei laguntza eskaini zaie datuak sartzeko garaian, eta 2025ean zehar mapa eguneratuta mantentzeko lan aktiboa egin da. Maparen erabilera sustatzeko, bi bilera online antolatu dira urtean zehar: maiatzaren 12an, 10:00etan eta 15:00etan, eta azaroaren 26an, 09:30ean eta 15:30ean. Eragile berriei dagokienez, erabiltzailea eta gakoak sortu zaizkie eta deialdi zehatz bat bidali zaie salmenta-puntuen maparen berri emanez. Ongi etorri saioan, proiektua azaldu zitzaizen gerturatu zirenei.



Dagoeneko 301 salmenta gune identifikatu dira. Horien artean, azokak, dendak, otar-banaketak, ustiategiak, baserriak, kontsumo-elkarteak.

Horrez gain, herritarren artean mapa ezagutarazteko hurrengo ekintzak egin dira:

- EAEko erakustazoketarako salmenta puntuen maparen tablero bat sortu da QR batekin eta bilatzailearen helbidearekin. Horrez gain, informazio gunean bilatzailearen inguruko informazioa eta erabilera azalpena eman da.
- Argian egindako 15 publizitatetik 8tan salmenta puntuen mapara QR-a jarri da eta horietako bitan Sareko, bilatzailearen publizitatea egin da zuzenean.
- Zuzeneko komunikazioetako ekintzetan, hau da, Ostalaritza eskolei eta kontsumitzaileei zuzendutako hitzaldietan, bisita gidatuetan eta erakusketa ibiltarian Sareko bilatzailearen berri eman da.

- Sare sozialak eta webgunea: ekolurra.eus webgunera sartzerakoan lehenengo pantailan sareko bilatzailea jarri da. Horrez gain, sare sozialetan bilatzailearen berri eman da.

Merkaturatze Sarea

Eragile ekologikoen merkaturatzea erraztu aldera, 2022an garatutako beste tresna Merkaturatze Sarea izan zen. Kontsumitzaileei zuzenean erosketa egitea ahalbidetzen dien aukerak ere Sareko bilatzailean biltzen dira “Sareko Puntuak” izenarekin. Puntu hauek azoka baten modura funtzionatzen dute. Ekoizle batek edo ekoizle talde batek antolatutako merkatuak dira, eta kontsumitzaile-talde zein norbanakoei zuzenduta daude. Aplikazioak ez du kosturik eragileentzat.

2025ean 19 merkaturen eskaintza izan da aktibo. Plataforma sustatze aldera, banakako 4 bilera antolatu dira interesa erakutsi duten ekoizleei eta 10 merkatu berrien sorkuntza proba egin. 2025ean 20 eragile desberdin izan dira erosketa plataforma erabiltzen.

Guztira 325 kontsumitzailek burutu dute 2025ean zehar erosketaren bat eta guztira 3717.780,92€ fakturatu dira. Sakona, Larreta eta Uribe Butroeko Sarea osatzen duten ekoizleekin jarraitu dugu lanean.



5.5. KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANA SORTU ETA SENDOTU

Elikagai ekologikoak eta nekazaritza ekologikoa sustatzea izan da gure helburu nagusia, eta ildo horretan, 2025ean komunikazio-ekintza ugari burutu dira. Gizartean kontzientzia piztea eta ekoizpen ekologikoaren garrantziaz jabetzea izan dugu xede, eta horretarako, komunikabide ezberdinekin harreman zuzena landu da, bai irratian, bai telebistan zein prentsan.

5.5.1 Argia Hitzarmena

Argia hedabidearekin urteko hitzarmena sinatu da nekazaritza ekologikoaren eta elikagai ekologikoaren ezagutza sustatzeko eta kontsumoa bultzatzeko. Hori horrela, hedabide honen euskarri desberdinetan nekazaritza ekologikoaren inguruko edukiak landu dira eta publizitatea egin da; Argia astekariko 12 faldoi, kontrazala, barne orria, bizi baratzea webgunea eta ilargia eta landareko agendan publizitatea eginez.

5.5.2 Ekosfera elkarlana

2024tik Ekosfera saioa daraman kazetariarekin, Guillermo Roarekin, kolaborazio bat dugu nekazaritza ekologikoaren inguruko gaiak jorratzeko. 2025ean ondorengo edukiak landu ditugu:

- Nekazaritza ekologikoan pestiziden ordeztasunaren diren teknikak.
- Nekazaritza ekologikoa eta ornitología.
- Mendi larreak ekologikoan ziurtatzeak biodibertsitatean eragiten dituen onurak.

5.5.3 Prentsaarekin harremana

Urtean zehar komunikabide eta hedabideekin harremana mantendu da nekazaritza ekologikoarekin lotutako edukiak partekatu, jorratu eta zabaltzeko. Prentsa-ohar desberdinak prestatu eta zabaltzeko, besteak beste, udako azoka ekologikoen berri emateko, 2024ko nekazaritza ekologikoaren datu garrantzitsuenak aurkezteko, lau udalerri beren lur komunalak ekoizpen ekologikoan ziurtatu dituztela jakinarazteko, baita Lurzorua izeneko hezkuntza programa abian jarri dugula komunikatzeko ere. Halaber, Euskal Sagardo Ekologikoa upeletan bereizteko balioko duen euskarria aurkezteko prentsa-oharra bidali da, sagardo ekologikoaren presentzia eta bereizgarritasuna indartzeko helburuarekin.

Prentsaurrekoak

Prentsa oharren osagarri, bi prentsaurreko antolatu dira. Lehenengoa, Euskal Sagardo Ekologikoaren euskarria jendarteari aurkezteko izan da; bigarrena, berriz, Europar Batasuneko Nekazaritza Ekologikoaren Eguna baliatuz, lau udalerri emandako urrats esanguratsua

ezagutarazteko erabili da, hots, beren lur komunalak ekologikoan ziurtatzeko erabakia publiko egitea. Bestalde, Bioterrak antolatutako prentsurrekoan ere parte hartu zen.



Medioekin elkarlana

Urtean zehar medioetatik izan diren deiak kudeatu dira, elkarriketak bideratu dira, edukien prestaketa egin da, eta medioekin harremanak estu mantendu da. Horrez gain, sukaldaritza saioetan elikagai ekologikoak txertatu dira, eta hainbat zozketa eta promozio-kanpaina egin dira, beti ere elikagai ekologikoen balioa azpimarratuz eta kontsumoa sustatuz.



- <https://guka.eus/azpeitia/1737025032437-elikadura-ekologikoa-sustatzeko-ekolurraren-erakusketa-ibiltaria-ikusgai-dago-ekoetxean>
- <https://azpeitiaguka.eus/azpeitia/1737971176937-pasta-ekologikoa-egiten-ikasi-dute-ekoetxean>
- <https://www.argia.eus/albisteak/euskal-sagardo-ekologikoaren-bereizgarria-kupeletan-jartzeko-gertu>

- <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/sociedad/2025/03/27/kupelas-muestran-oferta-sidra-denominacion-9451053.html>
- <https://guau.eus/m/la-ruta-slow-de-euskadi-kupelas-de-la-do-euskal-sagardoa-con-sello-ecologico-ekolurra>
- <https://www.diariovasco.com/bidasoa/irun/bioterra-refuerza-compromiso-ecologico-expositores-20250417195716-nt.html>
- <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20250416/la-agricultura-ecologica-se-cita-en-la-feria-bioterra-del-6-al-8-de-junio>
- <https://cadenaser.com/euskadi/2025/04/16/la-feria-bioterra-comienza-a-ver-sus-brotes-verdes-radio-irun/>
- <https://www.europapress.es/euskadi/noticia-total-85-empresas-tomaran-parte-22-edicion-bioterra-ficoba-irun-junio-20250416135527.html>
- <https://www.ondavasca.com/xabier-lejarzegi-eneek-el-67-de-la-superficie-agraria-de-euskadi-que-se-utiliza-profesionalmente-se-destina-a-la-produccion-ecologica-vamos-con-retraso/>
- <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/irratia/euskadi-irratia/ekosfera/osoa/9955143/>
- <https://www.ondavasca.com/xabier-lejarzegi-eneek-el-67-de-la-superficie-agraria-de-euskadi-que-se-utiliza-profesionalmente-se-destina-a-la-produccion-ecologica-vamos-con-retraso/>
- <https://www.ondavasca.com/zarautz-acoge-una-exposicion-itinerante-sobre-los-beneficios-de-la-alimentacion-ecologica/>
- <https://anboto.org/zornotza/1764075517264-ekoizpen-eredu-ekologikoa-ekoizpen-eredu-erresilientea-da>
- [Ekolurraren 'Lurzorua' hezkuntza programa, martxan - Zornotza - Anboto.org](#)
- <https://www.diariovasco.com/costa-urola/zarautz/exposicion-conocer-produccion-ecologica-merkatu-plaza-20251118200336-nt.html>
- [Quédate saioa – EBko Nekazaritza Ekologikoaren Eguna EITB 23-09-2025](#)
- [EITB LANDABERRI: Audio: Arantxa Arza eta Jakoba Errekondo](#)
- [GARA: Nekazaritza ekologikoaren aldeko urratsa egin dute lau udalerrik | Economía | GARA Euskal Herriko egunkaria](#)
- [Nekazaritza ekologikoaren aldeko urratsa egin dute Amezketak, Ataunek, Zaldibiak eta Urduñak | Economía | Naiz](#)
- [GOIERRIKO HITZA: Nekazaritza ekologikoaren aldeko urratsa egin dute lau udalerrik : Goierriko Hitza](#)
- [EL DIARIO VASCO: Amezqueta, Ataun, Zaldibia y Orduña acuerdan gestionar sus pastos de forma ecológica | El Diario Vasco](#)
- [DEIA: Orduña sella su firme compromiso con la producción agraria ecológica](#)
- [28 KANALA: Mendi lurren kudeaketa abeltzaintza eredu ekologikoarekin bateragarria izateko urratsa eman du Amezketako Udalak - Amezqueta - 28kanala.eus](#)

- [ATAUN IRRATIA: Ataun Irratia | Amezketak, Ataunek, Zaldibiak eta Urduñak urrats sendoa eman dute nekazaritza ekologikoaren alde](#)
- [Onda VASCA: 28/09/2025 - Km0 - Onda Vasca](#)
- [EITB, EKOSFERA: <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/irratia/euskadi-irratia/ekosfera/oso/10087002/>](#)
- [Biba Zuek Saioan: 2025-09-22 \(1:41:00 minutuan\) eta 2025-09-23 \(1:18:00 minutuan\)](#)
- [Udako azoka ekologikoak](#)
- <https://www.argia.eus/albiste/aurtengo-hamabi-plazak>
- [Udako azoka ekologikoak egingo dira EAEko 12 udalerritan abuztutik urrira](#)
- [Udako azoka ekologikoa egingo dute gaur Eusebio Gurrutxaga plazan](#)
- [Produktu ekologikoen azoka egingo dute bihar, ostiralean, Azoka Plazan](#)
- [Vitoria-Gasteiz se deja seducir por el origen de los alimentos en la feria ecológica de los Fueros](#)
- <https://www.noticiasdealava.eus/alava/2025/05/31/agricultura-ecologica-toma-centro-vitoria-9703390.html>
- [Con una txosna, un mercado y un concierto empieza el cambio en Vitoria hacia una agricultura ecológica](#)
- [La feria de agricultura ecológica de Getxo reúne el sábado a 18 productores en Algorta | El Correo](#)
- [Bio Getxo regresa a Algorta con su XIX Feria de Agricultura Ecológica | Radio Nervión](#)
- [Algorta será escenario mañana sábado de la feria ecológica](#)
- [Llega a Erreterria la feria local de alimentos ecológicos y el taller de cocina de corecetas – Herribizia](#)
- [El 11 de octubre vuelve la Feria de Consumo Responsable y Ecológico — Ayuntamiento de Eibar](#)
- [La plaza Untzaga de Eibar servirá de escaparate a la III Feria del Concurso Responsable y Ecológico este sábado](#)
- [Feria de consumo responsable y ecológico con más de veinte productores vascos en Unzaga | El Diario Vasco](#)
- [Zeraingo 31. Azoka Ekologikoa 2025 - Goierriko Hitza : Goierriko Hitza](#)
- [Elikagai ekologikoak, baratzetik plazara | El Diario Vasco](#)
- [Bizi-baratzea](#)
- [Bezere ugari erakarri ditu Udako Azoka Ekologikoak - Zarautz - Zarautzguka.eus](#)
- [Udako azoka ekologikoak egingo dira EAEko 12 udalerritan abuztutik urrira](#)
- [Irailaren 21ean hasiko da Goierriko Hamabostaldi Ekologikoa Zeraingo azoka ekologikoarekin - Goierriko Hitza : Goierriko Hitza](#)
- [Azoka ekologikoak, udako proposamen erakargarriak | Bertatik bertara | naiz: bidaiari - bidaia aldizkaria](#)
- [Udako azoka ekologikoak egingo dituzte Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 12 udalerritan | Herria | GAUR8](#)
- [Tokiko elikagai ekologikoen azokak Erreterria du helmuga larunbatean | Herria | GAUR8](#)

- [Bizi-baratzea](#)
- <https://www.noticiasdealava.eus/gasteiz/2025/10/05/30-anos-germinando-agricultura-ecologica-alava-feria-bionekazaritza-bionekaraba-10154876.html>
- <https://www.diariovasco.com/costa-urola/zarautz/feria-ecologica-verano-celebra-manana-zarautz-mano-20250821205106-nt.html>
- <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/bertan/2025/09/11/errenteria-celebra-sabado-feria-productos-10071371.html>

6. KONTROL ETA ZIURTAPEN ARLOA

Kontrol-planaren helburua da erabiltzaileei eta kontsumitzaileei bermatzea Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoan ekoitzi eta identifikatutako produktuek Europar Batasuneko elikagai ekologikoen etiketatzeari buruzko araudia betetzen dutela (2018/848 Erregelamendua).

Kontrol-plana urte hasieran egindako arriskuen ebaluazio batean oinarrituta diseinatzen da, eragile bakoitzari egin beharreko kontrolen eta analitiken kopurua ezarriz. Auditoreen esleipena kontrol-planaren beraren beharren arabera egokitu daiteke; horretarako, urtean zehar jarraipena egiten da, lan-taldearen gaitasuna sortzen diren beharrekin bat datorrela bermatzeko.

Kontrolaren eta ziurtapenaren arloan egiten diren lan nagusiak honako hauek dira: ziurtatutako eragileei edo ziurtapena eskatu dutenei auditoretzak egitea; adostasun-ziurtagirien berritzea edo jaulkipena berrikusi eta erabakitzea; eta informazio-eskaerei arreta ematea. Horiez gain, badira beste jarduera batzuk ere, hala nola erregistro- eta dokumentazio-sistemaren mantentzea, kalitate-sistemaren eguneratzea, langile teknikoen prestakuntza edo INTERECOn (Estatuko Kontseiluen Elkarte) dinamika ezberdinetan parte-hartzea.

6.1 ERREGISTROAREN KUDEAKETA ETA INFORMAZIO-ESKAEREI ARRETA EMATEA

Egunero jasotzen dira telefono bidezko edo posta elektronikoko kontsultak, bai dagoeneko erregistratutako eragileen aldetik, bai kontrol-sistema edo araudiaren baldintza teknikoak ezagutu nahi dituzten pertsonen aldetik. Batzuetan, kontsulta horiek azterketa sakonagoa eskatzen dute.

6.2 ERREGISTRO ETA DOKUMENTAZIO SISTEMAREN MANTENTZEA

Ziurtapen ekologiko guztiak Europar Batasuneko TRACES datu-base ofizialean argitaratzen dira. Kontseiluak aplikazio informatiko espezifiko bat dauka ziurtapen-espedienteak kudeatzeko eta dagokion ziurtagiriak jaulkitzeko. 2025ean aplikazioaren diseinu berritu eta hobetua lantzen aritu da, 2009ko aurreko bertsioa ordezkatzeko helburuarekin.

6.3 KALITATE-SISTEMAREN MANTENTZEA ETA EGOKITZEA

2025ean Kontseiluan ezarritako kalitate-sistemaren mantentze-lanekin jarraitu da, kontrol- eta ziurtapen-lanak behar bezala gauzatzeko. Sistemak ezartzen dituen eginkizun nagusiak bete dira: kalitate-eskuliburuaren eguneratzea, sistemaren barne-auditoriak, zuzendaritzaren

berrikuspenak eta ziurtapen-batzordearen urteko bilera (interes-taldeen batzordea), egindako lanen inpartzialtasuna eta independentzia gainbegiratzeaz arduratzen dena.

6.4 FORMAKUNTZA

2025ean hainbat eduki jorratu dituzten prestakuntza-saioak egin dira: lurzorua kudeaketan nekazaritza-praktikak; Gipuzkoako kiropteroen egoera; eta Zallako BFaren estazio esperimentalean egindako fruta-esperimentazioaren emaitzak. Horrez gain, barne-prestakuntza saioak ere egin dira, irizpideak bateratzeko helburuarekin.

6.5 INTERECO-N PARTE-HARTZEA

INTERECO Estatu osoko Nekazaritza Ekologikoko Kontseilu guztiak biltzen dituen elkarte da, eta ENEEK-Ekolurra haren bazkideetako bat da. Elkarte honek irizpideak harmonizatzeko eta araudi ekologikoaren interpretazio egokiak bateratzeko lan garrantzitsua egiten du. Zuzendari teknikoaren eztabaida-gune bat du, ziurtapen-irizpideak kontrastatu eta homogeneizatzeko aukera ematen duena. Gainera, kontrol-teknikarientzako prestakuntza-jarduerak antolatzen ditu, eta komunikazioko teknikarien koordinazio-talde bat ere badu.

INTERECO EOCC erakundeko kidea da; erakunde horrek Europan ekoizpen ekologikoaren kontrolaz arduratzen diren entitateak biltzen ditu.

INTERECOK bi ziurtapen-eskema pribatu eta borondatezko ditu, esparru ofiziala osatzen dutenak: elikagai ekologikoak erabiltzen dituzten jatetxeen ziurtapena, eta nekazaritza ekologikoan erabil daitezkeen inputen ziurtapena (fitosanitarioen, ongarrien eta abar fabrikatzaileentzat). Kontseiluko zuzendari teknikoak eskema horien bi ziurtapen-batzordeetan parte hartzen du.

6.6. KONTROL ETA ZIURTAPEN LANAK

6.6.1 Eragile ekologikoen errolda

Errolda

2025ean eragile diren pertsona eta enpresen erroldak %6ko hazkundera izan du. Lurraldeka, hazkundera handiagoa izan da Araban, batez ere ardogintzaren sektorean.

	2019ko Δ	2020ko Δ	2021eko Δ	2022ko Δ	2023ko Δ	2024ko Δ	2025eko Δ
ARABA	179 6%	187 4%	209 12%	219 5%	235 7%	264 11%	295 11'8%
BIZKAIA	208 9%	213 2%	218 2%	214 2%	218 2%	210 -3%	220 4'8%
GIPUZKOA	240 8%	258 7,5%	283 10%	285 0,7%	287 <% 1	294 2%	298 1'4%
Guztira	627 +7%	658 +5%	710 +8%	718 +1%	740 +3%	768 +4%	813 +6%

Eragile bakoitzaren jarduera produktibo nagusia kontuan hartuta:

	2019ko Δ	2020ko Δ	2021eko Δ	2022ko Δ	2023ko Δ	2024ko Δ	2025eko Δ
Nekazaritza	386 6%	438 13%	420 4%	434 3%	435 0%	471 8%	499 6%
Abeltzaintza	57 16%	% 34 -40	82 141%	% 80 -2	109 36%	113 4%	129 14%
Eraldaketa	123 8%	127 3%	140 10%	142 1%	% 141 -1	139 -% 1	% 138 -1
Inportazioa	8 0%	12 50%	% 9 -25	% 7 -22	7 0%	% 6 -14	% 5 -16
Merkaturatzea	53 6%	47 -% 11	59 26%	% 55 -7	% 48 -13	% 39 -19	42 8%
Guztira	627 +7%	658 +5%	710 +8%	718 +1%	740 +3%	768 +4%	813 +6%

Ekoizle, nekazari eta abeltzainen kopurua gero eta handiagoa da, eta ekoizle eta inportatzaileen kopurua, berriz, zertxobait jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta.

Erregistroan erroldatutako eragileen profila

Hiru ezaugarri hartzen dira kontuan: jarduera ekologikoa edo ekoizpen mistoa (eko eta ez ekologikoa); titular eta/edo titularkide gazteen presentzia (< 40 urte); emakumeak proiektuaren titulartasunean eta/ edo kide izatea. Iazko datuekin alderatuta, apur bat igo da 40 urtetik beherako eskatzaileen kopurua, eta titularra edo titularkidea emakume bat duten eskatzaileen kopurua. Ekologikoan bakarrik lan egiten dutenak proportzio berean mantendu dira.

Errolda osoaren% (768 Eragile)	2025 guztira
Ekologian bakarrik egiten dute lan	72%
Titular gazteak (< 40)	17%
Emakume titularrak edo kideak	29%

Jarduera nagusiaren arabera errolda (eragile berak bat baino gehiago izan ditzake):

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira / Total
Larreen eta/edo belardien aprobetxamendua	0	2	4	6
Lugorria eta/edo ongarri berdea	1	1	0	2
Ale-zerealen laborantza	6	0	0	6
Bazka eta proteaginosoen laborantza	35	0	1	36
Fruitu lehorren laborantza	0	0	5	5
Lekaleak haztea	4	0	0	4
Kontsumorako patataren laborantza	2	0	0	2
Landare aromatiko eta sendagarrien laborantza	0	0	1	1
Ernamuinak egitea	0	1	0	1
Frutagintza	12	25	80	117
Aire zabaleko baratzezaintza	17	81	61	159
Berotegiko baratzezaintza	0	2	2	4
Olibagintza	9	0	0	9
Beste landare-labore batzuk	1	3	1	5
Gatz-ekoizpena	1	0	0	1
Hazien eta landareen ekoizpena	0	1	3	4
Mahastizaintza	120	9	8	137
NEKAZAL EKOIZPEN GUZTIRA:	208	125	166	499
Erlezaintza	2	1	5	8
Errunaldiko hegazti-hazkuntza	1	9	6	16
Bazka eta proteaginosoen laborantza	2	2	3	7
Haragitarako ardi-abeltzaintza	1	3	4	8
Ardi-esnearen abeltzaintza	1	2	5	8
Haragitarako behi-azienda	20	19	21	60
Esnetarako behien abeltzaintza	0	4	5	9
Zaldi-azienda	6	6	1	13
ABELTZAINZA GUZTIRA:	33	46	50	129
Arrautzak sailkatzea eta ontziratzea	0	0	1	1
Arrain- eta/edo itsaski-kontserbak egitea	0	6	3	9
Elikadura-orearen elaborazioa	0	1	1	2
Gazta, esnea eta esnekiak egitea	0	1	2	3
Olioia egitea eta/edo ontziratzea	4	0	0	4
Kafea, tea, espeziak... elaboratzea eta/edo ontziratzea	4	1	1	6
Beste edari batzuk egitea eta/edo ontziratzea	2	1	4	7
Erlezaintzako produktuak elaboratzea eta/edo ontziratzea	0	0	3	3
Sagardoa egitea eta/edo ontziratzea	0	0	11	11
Haragi-transformatuak egitea eta/edo ontziratzea	0	2	2	4
Ardoa egitea eta/edo ontziratzea	26	1	3	30
Animalientzako elikagaien fabrikazioa	0	0	3	3
Haragi freskoak manipulatzeko	0	2	0	2
Haziak manipulatzeko eta/edo ontziratzea	0	0	2	2
Barazkiak eta frutak manipulatzeko eta/edo ontziratzea	0	5	1	6
Okindegia	5	3	15	23
Elikadura-prestakinak, homogeneizatuak eta/edo dietetikoak	2	1	3	6
Gozogintza	0	1	1	2
Sakrifizioa eta lana	0	0	4	4
Barazkien eta frutaren transformatuak	2	6	2	10
ELABORAZIO LANAK GUZTIRA:	45	31	62	138
Markisten banaketa	4	10	7	21
Markarik gabeko banaketa	2	1	3	6
Saltokia	3	4	8	15
Inportazioa	0	3	2	5
MERKATURATZEA GUZTIRA:	9	18	20	47
GUZTIRA	295	220	298	813

Alta eta baja eskaerak

Erroldaren bilakaera ulertzeko, alta eta baja eskaeren kopurua aztertu behar da. Guztira, 76 pertsonak aurkeztu dute alta, eta 29 baja eskatu dituzte. Gero eta eskaera gehiago aurkezten dira, baina 2021eko datu historikoaren azpitik (pandemia). Baja kopuruak behera egin du eta pandemiaren aurreko zifretara itzuli da. Baja eskatzeko arrazoiak aurrerago azaltzen dira.

Alta-eskaeretatik, 6 kasutan, eskaera artxibatu egin da, beharrezko dokumentazioa aurkeztu ez delako edo ekologikoan ziurtatzeko behar diren baldintzak betetzen ez dituelako.

Azkenean, 2025ean 67 izen-emate berri eman dira erroldan, 2024an 70 izan zirenaren antzekoa. Aurreko urteetan bezala, gehienak Araban izan dira, batez ere mahastizaintzan, 27 altarekin, guztizkoaren% 40.

ESKAERAK	2020	2021	2022	2023	2024	2025
ALTA	63	82	43	51	71	76
ARABA	20	28	18	23	36	41
BIZKAIA	19	23	12	13	15	19
GIPUZKOA	24	30	13	15	20	16
BAJA	28	27	35	36	37	29
ARABA	9	7	8	11	10	10
BIZKAIA	10	15	15	13	12	9
GIPUZKOA	9	5	12	12	15	10

Izena emateko eskabide berrien profila

Izena emateko eskaera gehienak ekoizleenak izan dira.

	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
ALTAK	65	63	82	43	51	71	76
Ekoizpena	47	41	70	35	48	60	65
Elaborazioa	12	15	8	6	3	9	7
Merkaturatzea	4	3	3	2	0	2	4
Inportazioa	2	4	1	0	0	0	0

Sortu berri diren eragile ekologikoak, eredu ekologikoa hasieratik hartzen dutenak:

Nekazaritza	Abeltzaintza	Elaborazio- enpresak	Guztira
1	3	4	% 10 (76tik 8)

Hurrengo taulan ikus ditzakegu 2025ean zehar ekoizpen-orientazio bakoitzean alta emateko eskabideak, jardueraren arabera sailkatuta:

NEKAZARITZA PRODUKZIOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Larreen aprobetxamendua			4	4
Bazka eta proteaginosoen laborantza	3			3
Alezko zerealgintza	4		1	5
Fruta hazkuntza		4	1	5
Baratzazaintza	1	2	1	4
Beste landare-hazkuntza batzuk			2	2
Mahastizaintza eta olibagintza	29	2		31
ABELTZAINZTA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Erlezaintza	0	0	1	1
Esne ardien abeltzaintza			1	1
Haragi-aziendaren abeltzaintza	2	4	2	8
Abeltzaintza ekina		1		1
ELABORAZIOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Haragi prozesatuak		1		1
Fruta eta barazkiak ontziratzea		1		1
Panaderia eta gozogintza		1	1	2
Beste edari batzuk ontziratzea eta eraldatzea			1	1
Elikadura-prestakinak		1	1	2
MERKATURATZEA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Banaketa	2	2		4
GUZTIRA	41	19	16	76

Baja eskatu duten eta emandako arrazoien profila

Ekoizpena izan da baja gehien eskatu dituen jarduera.

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
BAJAS	31	27	22	28	27	35	36	37	29
Ekoizpena	24	13	10	21	22	21	26	19	19
Elaborazioa	3	9	7	4	3	7	3	7	10
Merkaturatzea	4	4	4	3	2	4	7	11	0
Inportazioa		1	1	0	0	3	0	0	0

Borondatezko baja eskatzeko emandako arrazoiak

Borondatezko bajaren KAUSAK	eragilere kopurua
Jarduerarekin jarraitzen du, baina ekologiko egin gabe:	6
Enpresa ixteagatik jarduera etetea	8
Jarduera uztea, enplegu-aldaketagatik	1
Jabeen aldaketa dela eta, ekologikoan lan egiteari utzi	1
Erretiroa	3
Ziurtagiririk behar ez	2
Beste eragile ekologiko batek kudeatutako lursailak	3
Maneiu ekologikoarekin arazoak	3

Arrazoiak aztertuta, ikusten da bajak bertan behera uztea izan dela arrazoi nagusia, negozioa ixteagatik, erretiroagatik edo enplegu-aldaketagatik.

6.6.2 Jarduera ziurtatuak

Erroldaren banaketa, ziurtatutako aktibitateen arabera. Eragile berak hainbat jarduera izan ditzake, eta, beraz, guztira, 2025ean Kontseiluak kontrolatutako eta ziurtatutako jardueren kopurua 813 eragileen 1.004 jarduera ziurtatu izan dira.

	nekazaritza produkzioa	abeltzaintza	elaborazioa	merkaturatzea	inportazioa	GUZTIRA
ARABA	226	44	73	15	2	360
BIZKAIA	137	60	49	20	5	271
GIPUZKOA	186	67	87	27	6	373
GUZTIRA	549	171	209	62	13	1.004

Gipuzkoa da ziurtatutako ekoizpen-jarduera gehien dituen lurraldea. Talderik handiena nekazaritza-ekoizleena da,% 55ekin, eta eraldaketarena, berriz,% 21ekoa.

Ziurtatutako jarduera motaren arabera bilakaera:

EKOIZPENA	2019ko Δ	2020ko Δ	2021eko Δ	2022ko Δ	2023ko Δ	2024ko Δ	2025eko Δ
Landare-ekoizpena	422 8%	439 4%	479 9%	478 0%	490 2%	514 5%	549 7%
Abeltzaintzako produkzioa	104 10%	118 13%	128 8%	138 8%	141 2%	161 14%	171 6%
Elaborazioa	169 5%	181 7%	197 8%	206 5%	203 1%	207 2%	209 1%
Merkaturatzea	72 9%	77 7%	83 7%	77 -7%	72 -6%	62 -16%	62 0%

Inportazioa	15	17	20	16	15	14	13
	7%	13%	17%	-20%	-6%	-7%	-7%

Ekoizpen-jardueren ziurtagiria handitzen da, elaborazio-jarduerena pixka bat igotzen da eta ez dira merkaturatze- eta inportazio-jarduerak aldatzen.

Dagoeneko ziurtatuta dauden eragileen jarduera handitzeko eskaerak apur bat jaitsi dira aurreko urtearekin alderatuta:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
2020	20	16	12	48
2021	14	17	18	49
2022	18	8	13	39
2023	15	10	13	38
2024	10	13	13	36
2025	15	9	7	31

Araba nabarmendu da gainerako lurraldeen aldean, izan ere, ziurtatutako aktibitatea zabaldu duten eragileen kopurua handiagoa izan da.

6.6.3 Inskribatutako azalera

Azalera% 43 hazi da aurreko urtearekin alderatuta, eta guztira 18.167 hektarea dira Euskadin nekazaritza ekologikoan ziurtatuta daudenak 2025 urtearen bukaeran. Igoera handiena Gipuzkoan izan da, non azalera bikoiztu egin den, batez ere lareen igoeragatik. Arabak azalerarik handiena izaten jarraitzen du, mahatsondo eta labore estentsiboak dituelako.

Azaleraren banaketa, lurraldeka eta orientazioen arabera, eta aurreko urtearekiko aldea

Azalera (ha)	2019 Δ	2020 Δ	2021 Δ	2022 Δ	2023 Δ	2024 Δ	2025 Δ
GUZTIRA	5.661 27%	6.789 20%	7.905 16%	9.104 15%	10.772 18%	12.689 18%	18.167 43%
Araba	3.245 18%	4.046 25%	4.664 15%	5.213 12%	5.933 14%	6.579 11%	7.514 14%
Bizkaia	1.191 34%	1.417 19%	1.621 14%	1.699 5%	2.204 30%	2.648 20%	3.487 32%
Gipuzkoa	1.225 44%	1.326 8%	1.618 22%	2.192 35%	2.636 20%	3.461 32%	7.166 107%

Ekoizpen orientazioaren arabera:

ORIENTAZIOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira	%	Aldea 2024
Larreen aprobetxamendua	4.038	3.269	6510	13.817	76%	63%
Mahastizaintza	1.891	12	28	1.930	11%	15%
Bazka eta proteaginosoen laborantza	988	12	21	1.021	6%	-21%
Frutagintza	33	84	356	474	3%	4%
Zereal aleen laborantza	262	7	6	274	2%	3%
Lugorria eta/ edo ongarri berdea	85	32	138	254	1%	100%
Aire zabaleko ortua	21	63	61	145	1%	4%
Ale-lekaleen laborantza	54	2	1	57	0%	-30%
Fruitu lehorren laborantza	10	7	39	57	0%	4%
Olibondoak	50		2	53	0%	20%
Laborantza industrialak	38			38	0%	22%
Beste landare-hazkuntza batzuk	30	0,2	2	33	0%	175%
Kontsumoko patata	14	0,4	0,3	15	0%	-7%
Hazien eta landareen ekoizpena		0,1	0,4	0,5	0%	-2%
Negutegiko frutagintza			0	0	0%	-96%
GUZTIRA	7.514	3.487	7.166	18.167	100%	

Inskribatutako azaleraren % 76 larreei dagokie, eta lurralde guztietan nabarmentzen da, gero mahastiak eta frutagintza, azken honetan batez ere sagardo sagarra. Olibondoekin batera hauen guztien azalera igo egin da. Aldiz nabarmena Arabako labore estentsiboen jaitsiera eta lugorrien igoera. Gipuzkoan azalerak gora egin du, batez ere larreen igoeragatik.

Nekazaritza ekologikoaren azalera ehunekoetan


EAEko nekazal lurren %9 ekoizpen ekologikoan dago, aurreko urtearekin alderatuta 2 puntu igo da, baina Europako Itun Berdean 2030 urterako proposatutako %25-etik urrun dago oraindik. Estatu mailan datu hau % 12koa da eta Europa mailan% 11koa.

Gipuzkoan ehunekoa nabarmen hobe da, %18-koa, larreen eraginez.


	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA			EAE		
	Dena	eko		Dena	eko		Dena	eko		Dena	eko	
Ale zerealak	38.819	262	1%	73	7	10%	110	6	5%	39.002	274,41	1%
Ale lekaleak	3.642	54	1%	225	2	1%	281	1	1%	4.148	56,71	1%
Ortuariak	456	21	5%	1.082	63	6%	622	61	10%	2.160	145,41	7%
Tuberkuluak	1.109	14	1%	214	0	0,2%	150	0,3	0,2%	1.473	14,56	1%
Fruta-arbolak	118	33	28%	524	84	16%	1.529	356	23%	2.171	473,70	22%
Olibondoak	361	50	14%	0	0	-	12	3	21%	373	52,97	14%
Mahastiak	13.772	1.891	14%	13.772	12	0,1%	464	28	6%	28.008	1.930,23	7%
Fruitu lehorrak	191	10	5%	92	7	8%	123	39	32%	406	56,67	14%
Larreak, belardiak	36.924	4.038	11%	39.625	3.269	8%	34.912	6.510	19%	111.461	13.816,67	12%
Lugorri eta ongarri berdea	2.844	85	3%	5	32	-	2	138	-	2.851	254,36	9%
Haziak eta haztegiak	9	0	0%	9	0,1	2%	7	0,4	6%	25	0,54	2%
Bazka laboreak, proteaginosak	7.166	988	14%	862	12	1%	786	21	3%	8.814	1.020,75	12%
Negutegiko frutagintza	1	0	0%	1	0	0%	5	0,0	0%	7	0,02	0%
Laborantza industrialak	5.652	68	1%	1	0,2	25%	3	2	71%	5.656	70,39	1%
GUZTIRA	111.064	7.514	7%	56.485	3.487	6%	39.006	7.166	18%	206.555	18.167	9%

Azalera osoaren datua, HAZI-k 2024 urterako emandakoa da, ez ditu autokontsumorako azalerak kontutan hartzen.

EAEko azalera ekologikoa 2025ean



2025ean ziurtatutako azalera berriak



6.7 KONTROL PLANAREN HELBURUAK ETA EMAITZAK

Kontrol-plana urtero betetzen da eta bukatutakoan adostasun-ziurtagiriak berriztatzen dira. Txosten honetan jasotako datuak 2025eko otsailaren 1etik 2026ko urtarrilaren 31ra bitartean egindako kontrolei eta ziurtapen-erabakiei dagozkie, epea bukatutakoan ziurtagiri guztiak berritzen baitira.

6.7.1 Kontrol eta analitika plana

Errolda handitu ahala kontrolatutako espedienteen kopurua handitu egin da

	2022	2023	2024	2025
Espediente kontrolatuak	721	731	786	813

Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzko Europar Batasunaren 2018/848 Erregelamenduan deskribatutako kontrol-sistemak, gutxienez, eragile bakoitzari urteko kontrol bat egitea arautzen du. Horrez gain, gutxienez eragileen %10ri kontrol gehigarriak egitea eskatzen du, eragile bakoitzak arau hausteak izateko duen arriskuaren arabera. Egindako kontrolen %10 aldeztatik abisurik eman gabe egitea ere eskatzen du eta gutxienez eragileen % 5ri lagina hartzea.

Kontrolak izan daitezke, homologazio auditoretzak, jarraipenekoak, gehigarriak, apartekoak edota araudiko puntu zehatzak *in situ* egiaztatzeko.

Kontrolen bilakaera :

	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Kontrol-kopurua	850	899	965	945	1063	1071	1143
Kontrol gehigarriak	100	76	86	74	72	72	76
Eragileen %	14%	12%	11%	10%	10%	10%	10%
Eragile bakoitzeko kontrolak	1,3	1,3	1,3	1,3	1,4	1,4	1,4
Aurretik abisatu gabe egindako kontrolak	82	195	251	113	109	99	115
							10%
Kontrol analitikoak	134	117	169	72	74	61	62
Eragileen ehunekoa	21%	18%	24%	10%	10%	8%	7%
Diagnostikoak (ez dira kontrolak)						93	61

2025 urtean inoiz baino kontrol kopuru handiagoa egin da, 1.143 auditoretza guztira. Kontrol-planean urteroko kontrolaz gain, 768 eragiletik 78ri kontrol gehigarriak egitea aurreikusi zen. Azkenean 2 ezin izan ziren egin eragileek baja hartu zutelako baina hala ere araudian ezarritako %10 kontrol gehigarriak izatea lortu da.

Kontrol guztien% 10 aldeztatik abisurik eman gabe egin dira.

Laborategiko analitikak 62 izan dira eta denetarikoa laginak hartu dira, fruituak, hostoak, zurtoinak, haziak, etab. Lagin-bilketak aldeztatik abisurik eman gabe egin dira. 53 eragileri

hartu zaie lagina eta hori kontrolatutako eragileen %7a da (53/768). Ehuneko hori araudian ezarritakoaren gainetik egongo litzateke. Kontuan izan behar da 2022an aztertutako laginen kopurua murriztea erabaki zela, araudiaren eskakizunera egokitzeko, ordura arte askoz ere handiagoa zelako. Irizpide horren arabera urte hasieran 39 eragileri laginak hartzea planifikatu zen, kontrolatu beharreko 768 eragileen %5ri. Urtearen joanean, hasieran aurreikusten ez diren lagin-bilketa batzuk egin behar dira, susmoak daudelako, ikerketak egiten direlako edota ziurtatu beharreko eragile berriak izaten direlako.

Araudiaren puntu zehatzak betetzen direla egiaztatzeko laginak eta beste bisita batzuk biltzeko egindako kontrolak kontuan hartuta, horiek guztiek aldezturik aurretik abisurik eman gabe, erroldatutako eragileen %16k (130/813) kontrol gehigarriak eta/edo apartekoak izan dituzte.

Kontrol horiez gain, 61 bisita gehiago egin dira ziurtagiri ekologikoa eskatu nahi zuten eragileei. Bisita horietan araudiaren betetze-mailaren diagnostikoa egin da, ziurtagiria eskatzen hasi aurretiko diagnostikoa.

6.7.2 Laborategiko analitikak eta emaitzak

2025ean, hondakinen, transgenikoen, nitratoen, metal astunen eta glifosatoaren presentziaren azterketa egin da hainbat matrizeetan.

Aurten 3 laborategirekin lan egin da; hondakinak, nitratoak eta metal astunak bilatzeko SICaAgri eta LQMrekin lan egin da, eta transgenikoak Agrolabekin egin dira.

Aurten, aurreko urteekin alderatuta, baimendu gabeko substantzia aktiboen hondakinen detekzioa handia izan da, aztertutako laginen %16an nekazaritza ekologikoarekin bateragarriak ez diren substantzien aztarnak detektatu baitira. Detekzio guztiak mahatsondoetan izan dira, barazki-lagin bat izan ezik.

Hurrengo taulan egindako analisiak erakusten dira, lagin eta analisi motaren arabera. Emaizta desegokiak gorriz zehazten dira:

Matrizea/ analisi mota	Multirresiduoak	OGM	Metal astunak	Glifosatoa	Nitratoak
Edari hartzitua	1				
Fruta eta barazkiak	12 /1		1		3
Mahatsondo-hostoa	7 /6				
Mosto	1				
Oliva	1				
Ogia	1				
Pentsua		3			
Superelikagaiak	1				
Te				1	
Mahatsa	16				
Ardoa	13				
Yogur	1				
2025 guztira	54	3	1	1	3
2024 guztira	53	3	5		
2023 guztira	61	4	8	1	
2022 guztira	62	3		7	
2021 guztira	160	6	1	2	
2020 guztira	111	6			
2019 guztira	128	3	3		
2018 guztira	124	8			

6.7.3 Kontrol planen emaitzak eta ziurtapen-erabakiak

Guztira, 43 arau hauste edo ez-adostasun antzeman dira. Hurrengo atalean zehazten dira.

Hurrengo taulan, hartutako ziurtapen-erabakiak eta tartean izan den eragile kopurua laburbiltzen dira.

Erabakia	Eragile kopurua
Ziurtagiria berritzea	690
Bilakaera hasiera edo luzapena	9
Ziurtagiria aldi baterako etetea	3
Produkzioaren deskalifikazioa	8
Ziurtagiria kentzea	0
Eragilearen ziurtagiria kentzea eta baja hartzea, urteko kuota bat baino gehiago ez ordaintzeagatik	2

6.7.4 Atzemandako ez-adostasunen xehetasunak

Hurrengo taulan, detektatutako ez-betetzeak zehazten dira, arauaren eta hartutako erabaki-motaren arabera ordenatuta. Kontuan izan behar da eragile batek araudiaren puntu bat baino gehiagotan izan dezakeela arau haustea baina ziurtapen-erabakia bakarra dela, hautematen diren ez-betetze guztiak kontuan hartuta. Ziurtapen-erabakiak labur-labur deskribatzen dira taulan.

Araudiaren betekizunak	Exped kopurua	Erabakia
Baimenik gabeko biltegiatze fitosanitarioa	1	Produkzioaren deskalkifikazioa. Trantsizio epearen hasiera.
Kontabilitate dokumentatu okerra	2	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu.
Eskura ez dagoen auditoriarako beharrezko dokumentazioa	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu
Oiloen parkeen egoera	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu.
Etiketatu okerra	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu.
Animalia ez ekologikoen sarrera	2	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria ematea.
Animalia ez ekologikoen sarrera	2	Trantsizio epea artaldea eta/edo taldea behin betiko eratu arte luzatzea.
Ez dira eko produktua eta ez eko bereizten salmenta-agirietan	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu.
Lehengaien sarreraren kalifikazio ekoizterik ez	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu
Aztertutako laginetan baimendu gabeko materialak detektatzea	2	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu. Ez da beharrezkoa produkzioa deskalkifikatzea, ez baita uztarik jaso.
Aztertutako laginetan baimendu gabeko materialak detektatzea	3	Produkzioaren deskalkifikazioa
Aztertutako laginetan baimendu gabeko materialak detektatzea	3	Ustiategi osoaren ekoizpenaren deskalkifikazioa eta trantsizio epearen hasiera.
Aztertutako laginetan baimendu gabeko materialak detektatzea	1	Ekoizpenaren deskalkifikazioa eta 6 hilabeteko aldi baterako etendura.
Aztertutako laginetan baimendu gabeko hondakinak detektatzea	1	Denboraldi baterako ziurtagiriaren etena
Produkzio paraleloa	2	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu.
Produkzio paraleloa esne-abeltzaintzan	1	Trantsizio epea luzatzen da eta ezin da eko ez trantsizioan aipamenekin merkaturatu.
Erregistro osatugabeak	4	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu.
Baimenik gabeko abonuaren erabilera	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu.

Araudiaren betekizunak	Exped kopurua	Erabakia
Baimenik gabeko fitosanitarioaren erabilera	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu. Ez da beharrezkoa produkzioa deskalifikatzea
Baimenik gabeko fitosanitarioaren erabilera	1	Ustiategi osoaren ekoizpenaren deskalifikazioa eta trantsizio epearen hasiera.
Baimenik gabeko fitosanitarioaren erabilera	2	Produkzioaren deskalifikazioa. Trantsizio epearen hasiera.
Pentsu ez ekologikoaren erabilera	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria ematea.
Pentsu ez ekologikoaren erabilera	1	Arkumeen kanpainan ekologikoari buruzko erreferentziarik eza (6 hilabete). Ziurtagiria berritzea
Pentsuaren erabilera arauan ezarritakoa baino gehiago	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu.
Eko ez den haziaren erabilera	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu. Ez da beharrezkoa produkzioa deskalifikatzea, ez baita uztarik jaso.
Eko ez den haziaren erabilera	1	Ziurtagiria aldi baterako etetea
Eko gisa eko ez den produktuaren salmenta	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu.
Eko gisa eko ez den produktuaren salmenta	1	Denboraldi baterako ziurtagiriaren etena
Lehengaien kalifikazio ekologikoa ez egiaztatzea	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria 6 hilabeterako berritu, trazabilitate-sistema berria ezarri arte.
Biltegiko produktuen identifikazioa	1	Ez-betetzea itxitzat ematea. Ziurtagiria berritu.
Ez-betetzeak, guztira	43	